

Iñaki Gabilondo:

“Gaurko kazetaritza herritarren askatasunaren aurka doan paperezko otsoa dugu, zenbait botereren defendatzaile sutsua”



Galaxia bateko izarrak balira bezala, *kazetaritza, boterea, demokrazia, askatasuna* edota *etika* bezalako berbak elkarren ondoan bizi dira eta elkarri eragiten diote; elkarri lotuta daude. Iñaki Gabilondo kazetari donostiarraren ustez, Espainiako galaxia berezia da inondik ere, eta, gaur egun, une larriak pasatzen ari da. Bere ustez, mistika edo gurutzada antzeko bat bihurtzen ari da kazetaritza. Alderdikeria ez dator kazetari orok duen ikuspuntu ideologikotik begiratzetik, errealitatea, hari komeni zaion bakoitzean, faltsutzetik baizik.

10. or.



EUSKAL HERRIKO PARKE NATURALAK

Aste Santuko oporrak atarian ditugula, askok dagoeneko nora, nola, noiz arte... eta norekin joan ondo pentsatuta izango duzue aspaldi. Izan ere, esaten dutenez, prestaketa lana bera izaten dugu bidaiaren alderdirik erakargarriena, eta, eguneroko lan astunetatik ihes egiteko erabiltzen dugun lehen bidea. Horrelakorik egin ez baduzue, hona hemen bide hori egiteko ideia batzuk: gure inguruko parke naturalak. Ez da makala, gero, hementxe bertan dugun eskaintza: Aiako Harria, Aralar, Pagoeta, Izki, Valderejo, Urkiola, Gorbeia, Bertizko jaurreria, Urbasa eta Andia, Errege Bardeak, Abbadia, Larrun mendia... zain dituzu.

13. or.

Eztabaida: Pozoitzen ari al gara?

Behien entzefalopatia espongiformeak, dioxinak... kontzeptu arrotzak ziren gehienontzat, teknika-rientzat edo adituentzat izan ezik. Laster egin zaizkigu ezagun, ordea; beraiek azaleratu baitituzte elikagaiak ekoizteko egindako astakeriak eta gehiegikeriak. Eta ez omen dira elikaduraren inguruan ezagutuko ditugun azken eskandaluak. Kontrolak gero eta zorrotzagoak dira, baina sarritan badirudi elikatu beharrean pozoitzen ari garela.

20. or.

5

Euskalduntzea
Ahozko azterketei ekiteko gomendioak

12

Normalkuntza
Euskararen inguruko arategien bilakaera Nafarroan (1986-2001)

22

Giza baliabideak
Nola malgutu funtzio publikoaren jarduera



■ Nola mantendu dira hizkuntza multzo batzuk hizkuntza hedatuenean ondoan?

Maiz, jendeak bere ama hizkuntza erabiltzen jarraitu duelako, politikaz axolatu gabe. Frantzia, arrazoi politikoengatik da frantses hizkuntza herriko hizkuntza bilakatu. Linguistika aldetik ez zuen hala izateko arrazoirik. Herrietako hizkuntza ofizialez mintzo garelarik, ondoko galdera egin dezakegu: zergatik hizkuntza horiek nagusitu dira? Bertzeek ez zutelako baliorik? Hizkuntza bat ez da sekulan balioaren arabera nagusitzen. Herrien historiari lotua da. Ez badu hitun gehiagok erabiltzeko aukera ukan, erran nahi du historikoki trabak jasan dituela. Ez du erran nahi txarragoa dela.



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Marrazkiak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Mikel Arregi Perez, Aintzane Arrieta, Sabino Cuadra Lasarte, Lutxo Egia, Jexux Eizagirre, Luis Elizondo, Itziar Caritagoitia, Martin Gartzandia, Jakes Goikoetxea, Aitor Gorostiza, Hutsune, Ander Lakarra, Luma, Manu Lopez, Koen Nomden, Nerea Pikabea, Asisko Urmeneta.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren irizkiak.

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legeko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /http://www.ivap.org

PERTSONAIA

Joane SOMARRIBA:

“Horiz jantzita eta Bilbon hasiko dut aurten Tourra”



Gurpil gainean eta pedalarari eraginez ezagutu ditu familiako gehienak Joane. Izterreko arazo batek dena pikutara bidaltzeko zorian eduki zuen arren, gaingitu ezinezko aldaparik berarentzat ez dela erakutsi du hogeita zortzi urteko txirrindulari honek. Bi *Giro* eta *Tour* baten jabe izanik, Euskal Herriko zaletuen begirunea lortu du sopolarrak. Aurten Bilbon hasiko den *Tourrari* begira dago.

Bizikletazale amorratuak izan dira zure inguruko denak. Aitzindari izan dituzu zure ahizpa Ainhoa, Ramontxu Gonzalez Arrieta senarra... Erabakigarriak izan al dira zure garaipenetan?

Bai, noski. Biak bizikletari lotuta egon dira beti. Zaletasuna sortarazi didana, ordea, aita izan da. Itsasgizona izaki, itsasotik etxera etorri eta berehala hartzen zuen bizikleta. Bere bizikleta orduak ez zizkion inork kentzen. Berarekin sortu zait txirrindularitzarako grina.

Hernia batek, ordea, zure ametsak zapuztu zituen, ia bizikletari agur esateraino...

Disgustua itzela izan zen. Txirrindularitza odolean daramat eta bizikleta utzi beharrak min handia eman zidan; hala ere, etsi egin behar izan nuen. Bizitza normala egiten jarraitzeko aukerarik izango nuen ere ez nekien... Norberaren osasunak lehentasuna du.

Zortzi urtetik bizikleta gainean, pedala gora eta behera, eta erretiratzeko asmotan zeunden unean bertan garaipenak zeure etxeko aldaba jo du...

Bai. Lesioaren ondoren asko kostatu zitzaidan osatzea. Espainiako Selektzioarekin Italian egindako egonaldia, ordea, galdutako ilusioa piztu zuen nigan. Bizikleta gainean gehiago eman nezakeela uste zutenek Italian gelditzeke proposatu zidaten orduan. Nire inguruneetik aldentzea gogorra egingo zitzaidala banekien arren, aukera horri eustea erabaki nuen.

“Heldutasunaren garaipena” omen dira irabazitako itzuliak. Zuk esana.

Horrelako itzuli bat irabazteko heldutasun pixka bat behar da. Txirrindulariak une bakoitzean bere lekuan egoten jakin behar du. Lasaitasunez, egunez egun landu behar du lasterketa. Burua indartsu edukitzea eskatzen du horrek, eta prestakuntza. Denbora eta esperientziaren ondorioa besterik ez da arrakasta.

Lau urte daramatzazu dagoeneko Italiako Alfa Lum taldean. Haraino joan beharra

dauka txirrindularitzan profesional gisa aritu nahi duen emakumeak?

Bai, zoritxarrez halaxe da. Hemen zer edo zer egin nahi izanez gero, beste lan batekin batera izan behar du nahitaez, eta ondorioz, emakume askok txirrindularitza uztea erabakitzen dute. Atzerrira joanda bakarrik lor daitezke bizimodua aurrera ateratzea eta prestakuntza hobea. Horretan ere... gizonetako abantaila.

Hortz-protzesietatik bizikletara alde handia dago. Inoiz ikusiko al zaitugu hortzetarako protesiak egiten, Joane?

Ez, ez dut uste. Italiara joateko proposamena egin zidaten unean bertan amaitu nituen ikasketak. Entrenamenduek ordu asko kentzen zidatenez, ikasitakoa alde batera utzi nuen. Erretiroa hartzen dudanean kirolarekin zerikusia duen zerbaitean arituko naizela uste dut.

Txirrindularitza profesionaleko saririk potoloenak besapean zenituela itzuli zinen iaz Euskal Herrira. Nola hartu zaitu jendeak?

Oso ondo. Jende guztiak zoriondu eta animatu nau: egindako lana eskertu didate. Oso ondo sentiarazi naute zaletuek. *Giroan* egon naiz, *maglia* arrosa bi aldiz soinean izan dut, eta harro nago egin dudanarekin. Berritza bi itzuliak egitea larregi denez, aurten *Tourra* prestatuko dut soilik.

2001eko Emakumezkoen Tourrak Bilbon izango du hasiera. Bertan izango zara, beraz?

Bai, eta oso pozik gainera. Abuztuaren 5ean Bilbon egingo da sarrerako etapa. Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udalak horretan egin duten ahalegina eskertu nahi dut. Beraz, “1” zenbakia bizkar gainean dudala eta horiz jantzita zeharkatuko ditut Bilboko kaleak. Ohorea da niretzat, hitzez nekez azal daitekeen sentimendua.

Nerea PIKABEA
Kazetaria

Hitzak hits

Eremu urriko hizkuntzetako hiztunok bagenuen pizgarri bat aurten: Europako Hizkuntzen Urtea ospatzen da, Europako Batasunak eta Europako Kontseiluak sustatuta. Hori dela eta, hizkuntza aniztasunaz, Europako ondareaz eta elkarren aberasteaz sarri egiten da hitz. Eta pitz.

Urtearen ikur gisa edo, kameleoia aukeratu dute. Animalia bitxia, bai horixe. Mihi luze-luzea du eta larruko kolorea aldatzeko gai da, ingurumenarekin bat egiteko, antza. Kamuflatzeko edo.

Zoritxarrez, ospakizunaren antolatzaileen www.eurolang2001.org web-gunea ikusita, badut susmo franco Hizkuntzen Urtea ere ez ote diguten kamuflatuta saldu. Helbide hartara joanez gero ikusiko duzu bertako mezuak eta argibideak hamaika hizkuntzatan daudela... eta hamaika diodanean, horixe besterik ez diot: hamar gehi bat, gehiagorik ez. Eta jakina, denak estatu-hizkuntzak izan.

Beste hizkuntzek, aldiz, ez omen dute merezi hango testuetan zein estatistiketan agertzerik ere, nahiz eta Urtearen helburuen artean "gutxiago erabili eta irakatsitako hizkuntza horiek" ere aipatu. Hori al da bul-tzatu nahi den hizkuntz aniztasuna eta kultur aberastasuna? Hizkuntza handiena bakarrik ote da urtea? Herri xehegandik oraindik urrun dago Estatu larrien Europa. Kolore gutxiko kameleoia.

Zigor Araujo

"Administrazioan euskaraz eta gaztelaniaz"

Aldizkariarekin bidaltzen duzuen urteroko egutegiari buruzko iradokizuna, begirune osoz: elkarrengana-ko errespetutik abiatuta, "Administrazioan ere euskaraz" leloak badu azpian militantzia-kutsua eta filo-sofia bat euskarak gaztelania ordezkatu behar duela dioena, eta Euskal Herrian euskera eta abar ulertze-ko modu anitzak daude. Nik askoz gustorago onartuko nuke "Administrazioan Euskeraz eta Gaztelaniaz" edo antzekoren bat, zeren eta nire bizitzan bi hizkuntzak erabiltzen baititut, eta bata zein bestea dira neu-reak. Badakit ideia hau "itsusia" dela, baina zein anitza den gure Euskal Herria! Berriro diñotsuet begi-runez adierazten dizuedala hau, eta, bide batez, mila esker esandakoa esateko aukera eskaintzeagatik.

Irakurle bat



© HUT'S UNE

Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi beharko dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahalko du sail honetan bertan.

Nola ekin ahozko probei

EGAn, Hizkuntz Eskakizunetan nahiz Hizkuntz Eskolako tituluaren erabiltzen den aspaldiko hurrenkeran, gramatika testaren eta idatzizko azterketaren segidako atala da ahozko proba. Estatistikak estatistika, ahozko saio honek beste bi azterketek baino ikara handiagoa eragiten duelakoan nago. Hiruzpalau arrazoi aipa daitezke azterketari gehien urduritasuna azaltzeko: bakardadea, ohiturarik eza eta erantzukizuna. Urrezko aholkurik eskaintzeko asmorik gabe, zertzelada batzuk aipatuko ditut, baten bati mesede egingo diolakoan.

DENBORALDI AURREKOAK

–**Kartzelako gaia.** Alor honek berariazko lanketa eskatzen du, berridazketek, sinonimoek eta idazlanek eskatzen duten bezalaxe. Bertsolarien kartzelako gaiaren irudiaren bidez ulertuko duzu ahozko probaren garrantzia: finalean, kartzelako gaiak erabakitzen du txapela.

–**Tourrerako arnasberrituta.** Kolonbiako mendi gorenetatik jaitsi berri diren txirrindulariek badute bentaja txiki horren berri: lasterketaren lehen astean bizkorrago aritzen dira, hauspoetan bor-bor dabilen oxigenoari esker. Beraz, mintzamenaren lantzeko barnetegiren batera joatekotan, azterketa aurretikoa duzu garairik onena: gogo-giroa prest, hizkera oliztatuta itzuliko zara.

–**Bertsolarien legea.** Barnetegiek ez ezik, bertsolarien kutsuko teknikak zer eskaini ugaria dute edozein hiztunen gaitasuna zorrozteko. Askok dira eskola horren onurak: eguneko giroaz jabetzeko sena; kontu-kontari aritzeko patxada; edozein gai di-da batean egituratzeko erraztasuna; batetik bestera jauzi egiteko malgutasuna... labur esanda, berbaldi txapel, moldakaitzak kolorez eta bizitasunez janzteko dohaina.

–**Norbere neurria.** Hiztunak zer egin dezakeen eta zer ez jakin behar du. Nork bere maila eta tankera ezagututakoan erabaki dezake zer mugatu eta zertan luzitu. Hortaz, azterketa egunean komeni da *ezer ez estrenatzea*.

–**Grabazioa.** Prestaketa saioetan ezinbestekoa da norbere ahotsa behin eta berriro entzutea. Ahoskera, arnasa, tonua, abiadura, etenak... apurka-apurka doitzea. Ozen irakurtzea eta zinta batean grabatzea lagungarria izan dakizuke.

–**Erlouja.** Entrenamenduetarako tresna aproposa duzu. Zer esanak eta denbora tartekak elkarrekin egokitzen ikasi beharra dago.

PRESTAKETA GELAKOAK

Prestaketa gela esaten zaio testua irakurri eta mintzagaia prestatzeko erabiltzen den tokiari. Ezinbestekoa da hor igeroko duzun denborari zukua ateratzea, azterketa gelan patxadaz aritu zaitez gero. Hona, labur-labur, gomendio batzuk:

–**Garaiz iritsi.** Zeure inguruaz jabetzeko astia izateak lasaituko zaitu.

–**Lanen berri zehatza izan.** Ahozko probaren xehetasun guztiak (zenbat denbora duzun, ariketa bakoitzaren funtsa, tokiak, zuzentzeko irizpideak...).

–**Tresnak eskura.** NA, boligrafoa, oharrik eta apunteak hartzeko paperak...

–**Janzkera egokia.** Erososa. Egur horretan ez jantzi oinetako esturik, edota azkura ematen dizun jertsea.

–**Laburpen zehatza.** Testua bizpahiru aldiz irakurritakoan, egin ezazu laburpen zehatza, artikularen muina eta datu osagarriak ondo bereiziz. Erne! Testua goitik behera kopiatu

gabe. Astirik izanez gero, ideia nagusien aldamenean erantsi testuarekin zerikusia izan dezaketen beste kontu batzuk.

–**Mintzagaia ere prestatu.** Bat-batean jarraitzeko ildo edo apunteren batzuk bederen. Gogoan hartu: zeure mintzalditxo bideratzeko gauza ez bazara, zer esan ez dakizula gertatzeko arrisku larria duzu. Horrelakoetan, aztertzailerik *galdera lagungarriak* egingo dizkizute, baina zeurea da, ez bestearena, hitzalditxo osatzeko ardura. Aurretik zerbait prestatu ezean, axolagabetzat hartuko zaituzte.

–**Arnasaldi sakonak.** Bazaude ia. Testua eta mintzagaia geroz atondu dituzu, saio distiratsua aterako da. Azterketa gelara sartu aurretik, ez ahaztu mintzamenaren alderdi fisikoa: ahotsa garbitu eta berotu; irakurri ozen paragrafoetako bat... Azkenik, estutasun guztiak uxatzeko, hiru arnasaldi sakon, eta barrura!

AZTERKETA GELAN

–**Jarrera.** Zorionez edo zoritxarrez, zure hizkuntz gaitasuna gorabehera, epaimahaikoek jarrerari ere erreparatuko diote. Aztertzaileren aurrean heldutasuna, ikasgura, gauzak txukun egiteko gogoia erakustea duzu helburu. Beraz:

- Gogoratu epaimahaikoak ere zeure egoeran izan direla inoiz.
- Eseri zuzen, baina gogortu gabe, arreta erakutsiz. Sekula ez nagi edo etzanda.
- Ez begiratu oinetara edo paperetara etengabe. Begiak epaimahaikideei begira beti. Irribarretxoren batek ez dizu kalterik egingo.
- Eskuak astiro erabili, azalpenei laguntzeko.
- Hots eta keinu nabarmenak baztertu.
- Aurrekoak ere norberarekin uztartu: arreta piztuz (*Ezetz jakin nor...?; Badakizue zer...; Ohartu zarete, ezta?*) eta, ahal den neurrian, naturaltasuna erakutsiz. Hitzalditxoaren nondik norakoak zerorrek gidatzen dituzula erakutsi beti ere.
- Erantzunetan, gogotsu: *Bai...; ez...; ez zait ezer bururatz...* esanez ardatza galduta zabiltzala erakutsiko duzu. Agorraldietan, hoberik otu ezean, bilatu elkarrizketarako haria edota aurretik esandakoak birgogoratu eta laburtu. Horrela, ondo egituratu gabekoari ere antolaketa itxura emango diozu.
- Aurrekoekin, errespetuz: edozein azterketak begirunez jokatzea eskatzen du.
- Urduritasun puntuari eutsi: norbere buruaren kontrolari, alegia. Berotu eta konfiantzaz gainezka dabilenak erdarakadetarara edo hitz-makuluetara joko du erraz: *Eske...; osea; ..., no?*
- Bukatutakoan, presarik ez: amaieran aztertzailerengandik erantzuteko prest zaudela adierazi, zer kontatu gehiago duzula, gustura jarraituko zenukeela.

–**Hasiera leuna.** Oso hedatuta dago epaimahaikoak hasiera hanpatu batekin liluratzeko joera. Hara: *Kaixo...* arin baten ondoren, aulkian tente jarrita, arnasa hartzeko tarterik gabe, serio-serio hasi da azterketaria: “*Beno, itzulunguruak utzi eta nire testuaren aurkezpenari ekingo diot hurrengo minutuetan. Tabakozale-tasuna da, hain zuzen ere, niri gaurko honetan egokitu zaidan gaia. Oso gai bihurria eta korapilatsua iruditzen bazait ere.../... lehenengo atalari lotuko natzaio jarraian*”. Nire ustez, ahozko probaren hasieran honelako atarikorik ez egiteko arrazoi bat baino gehiago dago:

- **Erregistroa, tonua:** idazki (?) batetik kanpora, aurreko pasarte horrek adabaki itxura du. Berriketan, era horretako aurkezpenek naturaltasun falta handia erakusten dute. Erraz sumatzen da buruz ikasitakoak direla.

PARE BAT OHAR ZUZENTASUNAZ

Ahozko azterketetan idazlanetan baino barkagarriago dira gramatika akatsak. Edozein modutan, mintzamenean gutxieneko begirunea zor zaie gramatika araei, zuzentasunari alegia. Eranskin gisa, oinarri-oinarrizko irizten ditudan erabilera batzuk hautatu ditut, batzuk traketsak, eta beste batzuk, egokiak.



EZ

Ageri-ageriko yeismoak (*zaia* < *zaila*); zenbait multzo ahoskatzeko trabak: *jiro*, *azaltzen*, *administrazion...* (< *giro*, *azaltzen*, *administrazio*)

Nork kasua Izan aditzaren taldekoekin uztartuta: **GuK nekaituta gaude*; era berean, erakuslearen inguruko korapiloak: **Hau gezurra dirudi*.

Beste gauza [bat] bururatu, *beste egunean...* eta antzeko aldrebeskeriak. *Bat* zenbatzailea (*Gose bat daukat!*) edozertarako.

Subjuntiboak esker txarrekoak dira.

da, da, da; du, du, du... euskal adizkiak dira; ez bakarrak, ordea.

Kontuz konpletiboekin: *-la, -la, -la...* aurreko abestia bezain burukomintsua gerta daiteke. Ahazteko arriskua dago, edota behar ez dela erabiltzeko: **Kontuz aulkiarekin, pintatu berri dagoela!*

Erlatiboak perpausak, premiazoak ez badira. Erne: **Bada arazo bat izugarri kezkatzen gaituela*. Erraz arin daitezkeen alferrikakoak (*Durangon bizi den lagun bat* > *Durango lagun bat*.)

Ez hasi nekez bukatuko duzuna: *Hain zeuden nekatuta [non] ...*

Oro har, hizkera loratuegia, artifizialtasun kutsukoa, behartua. Menpeko esaldi korapilatsuegiak, antolatzaile nahiz lotura esapide formalegiak (*alabaina, nolnahi ere den, esan dezadan...*)

Lexiko zehaztugabea (*gauza asko hartu, oso handia, baserriko animaliak, gizon zaharra*) eta erdarakada gordinak (*zaurituen zenbakia, periodikua*).

Erabilera urriko berba distiratsuegiak (*andean, hobari, unadura*), are deigarriagoak aurreko saileko aldrebeskerien aldamenen plantatuz gero.



BAI

Zenbait elkarketaren ondorio diren kateak: *enoa; ezpadiator, eztago, ezgara; baitzaigu, bainago...*

-a/-0 bereizketa aintzat hartu: *Hainbat gauza, mailarik onena; irailan jai*. Partitiboarekin eragozpenik gabe (*Ez dugu pospororik*).

Ezer (ez), inor (ez), inon (ez)... eta abarretan jaun eta jabe. Orobat mugagabeekin.

Lantzean behin ahalezkoren bat txertatu eta, batez ere, oinarriko ikasgaietan (*izan/ukan* bereizketa, aspektua nahiz komunztadura) eroso zabiltzala erakutsi.

Hitz ordenari eta galdegaiaren erabilerari erreparatu: **Daukagu oso azterketa zaila*.

Konparazioaren inguruan maiztasun handiko esapideak era daitezke; *zein baino zein...*, *ahalik eta bizkorren* eta kideekin aztertzailen bihotzak samurtuko dituzu.

Kontzesiboak (*arren, ba... ere*) ere esker onekoak dira, besteak beste, *bainari* atsedena emateko. *Nahiz eta...* egitura gaiztoagoa duzu

Han-hemenka, pertsona eta leku-denbora erreferentzia zehatzak. Erara datorrenean, modaliazioaz baliatu (*omen, antza denez, beharbada...*)

Tankera leunagoa, ahozko erregistrotik hurbilekoa, lagunartekora (*Kriston zergak*) edo arduragabekeriara lerratu gabe. Perpaus motzak baina ondo josiak. Lotura arinagoak, zernahitarakoak (*izan ere, gainera, hortaz...*)

Lexiko zehatza (*opari asko jaso, galanta, abereak, agurea*) eta adierazkorra.

Beti dira aproposak eratorpeneko atzizki arruntenak (*lotsati, erraztasun, zientziazale...*).

Ander Lakarra
EGAKo aztertzaila



Mundua on line

Ibiñagabeitia proiektua: literatur aldizkarien gordailua Benetan webgune dinamiko eta bizia Susa argitaletxearena (www.susa-literatura.com), egunetik egunera eskaintza berriak aurkezten ari dena (poemen grabazioak, liburu-kritikak, e.a.).

Iragan martxoan Internet bidez, literatur arloko beste zerbitzu bat aurkeztu du aipatutako argitaletxeak: *Ibiñagabeitia Proiektua* izeneko gordailua. 1975etik 2000ra bitartean sortu eta desagertu diren euskal literatur aldizkarietako testuak eskaintzen ditu Susak, ez bere webgunean, baizik eta beste honetan: www.armiarma.com. Oraingo idazle askoren hasierako lanak aldizkarietan aurki daitezke, baina gaur egun aldizkari horiek edo ez dira plazaratzen edo nekez eskuratu daitezke liburutegietan. Horregatik, azken 25 urteetako literatur aldizkari garrantzitsuenak bildu dituzte zerbitzu horretan.

Ustela, Pott, Xaguxarra, Susa, Literatur Gazeta, Korrok eta beste hainbat aldizkarietako testuak dira Susak sarean jarri dituenak.

Luis Elizondo
luis-elizondo@ivap.es

U EU-2001

UEUko Glotodidaktika Sailak eta HABEk *Helduen euskalduntzearen IV. Jardunaldiak* antolatu dituzte eta bertan gai hau aztertuko da: *Metodologia euskara 2H gisa irakatsi eta ikasteko prozesuetan*. Jardunaldiok Donostiako Kursaal Jauregian izango dira 2001eko maiatzaren 25ean.

G Getxo Linguae

Getxon, maiatzaren 30etik ekainaren 1era arte Hizkuntza Eleanitzaren Nazioarteko Batzarra izango dugu. Batzarraren saioak Igeretxe Hotelean izango dira eta hasierako ekitaldia maiatzaren 30ean izango da goizeko bederatzi eta erdietan. Bertaratu nahi izanez gero, martxoaren 12tik apirilaren 20ra bitartean eman behar da izena (dohainik). Biltzarra amaitzean bertaratze ziurtagiriak emango dira. Honako telefono honetan emango dizute informazio gehiago: 94-4910009.

G gazteentzako informazioa euskaraz

Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek interneten gazteentzat jarritako informazio-gunea euskaraz kontsultatu daiteke dagoeneko. Gune honek hartzen dituen arloen artean honako hauek ditugu: lana, diru-laguntzak, hezkuntza, deskontuak, argitalpenak, e.a. Egunero berraztertzen da eta laster frantsesez eta ingelesez ere kontsultatzeko moduan egongo da. Hona hemen helbidea: euskadi.net/gazteria.

N Nabarra, aldizkari berria

Nabarra, euskara hutsezko hilabetekari berria, laster izango dugu kalean. Argitalpen honetan, euskaraz bizi nahi dugunontzako baliabide berriak eskaini nahi dituzte egileek. Honela, mota guztietako gizarte gaiak eta euskal kultura izango dira solasgai nagusiak: literatura, hedabideak, komikiak, iritziak, elkarrizketak, musika, internet, zinema, osasuna, bertsolaritza... eta beste hainbat gaik osatuko dute kolore anitzeko aldizkari hau. Urte askotarako!

H Hizkuntzen Urtea

Europako Batzordeak "Hizkuntzen Urtea" izendatu du 2001. urtea. Urte honetan, beraz, zenbait ekimen gauzatuiko ditu, hizkuntz aniztasuna Europako ondarearen elementurik funtsezkoenetakoa dela adierazteko; ekimen hauen bidez hiru helburu lortu nahi ditu: hizkuntz aniztasunak Europako Batasunaren barruan dakarren aberastasunaz europarrak jabearaztea; hizkuntzen ikaskuntza etengabe bultzatzea; eta hizkuntzen ikas-irakaskuntzaren gaineko informazio guztiak bildu eta zabaltzea.

J Jagonet

Jagonet, Euskaltzaindiak Interneten jarritako kontsulta eta aholku zerbitzua dugu; zerbitzu honen bidez, euskararen erabilera zuzena eta egokia bultzatu nahi du Euskaltzaindiak. Horretarako, laguntza hauek eskaintzen ditu: Arau-erabakiak (Hizkuntza Arauak eta Hiztegi Batua), galdera eta erantzunen datu-basea, arduradunari galderak egiteko aukera, eta eztabaidagunea, kezka eta iritziak argitzeko edota bestek zer dioten jakiteko. Helbidea honako hau duzu: www.euskaltzaindia.net/Inicio_e.htm

TALADRINAREN MENDEKUA

—Nola behar den hitzen maldiziotik begiratu—

—Bai, zalantzarik ez dago, komisario jauna —esan zuen Inesek argazkia eskuetan zuela— bera da: Sonia Mujika.

Inesek musuzapia atera zuen begiak apur bat sikatzeko, negargarari ezin eutsirik. Argazkia mahai gainera bueltatu eta mantso, martzialki, kaleko aterantz abiatu zen...



Usainak petzaren pisu beltza zuen, edonor atzera botatzeko modukoa, zalantzarik gabe. Paraje gris ilun hartan makinek eroturiko piztiak baliran egiten zuten orro eta aiene, lantu eta aiuri. Ikasle taldeak Agirre doktoreari atzetik segitzen zion erne-erne, oihan bateko landareria itsuaren artetik senda irekiz joan behar balute bezala ezker-eskuin begira behin eta berriro. Mikel txunditurik zegoen hangoekin, hango herdoilaz, hango ustelaz enamaturik, eta kalkuluak egiten hasi zen, zenbat heriotza, zenbat kalte konponezin, zenbateko sarraskia egin ote zitekeen han metaturiko hondakin haiekin guztiekin...

—Non dago Xabier? —galdetu zion halako batean Luisek Mikeli, haren arreta lortzeko sorbalda astindu ondoren.

—E?, a, ez dakit, uste dut neskarekin geratu dela parkean eta hona etortzeaz paso egin duela-eta berean murgildurik jarraitu zuen, hipnotizaturik.



—Utzi, utzi, neronek askatuko dut —esan zion Loreak marmarean Xabierri, eta alde bietara begiratu ostean eskuak atzera bota eta titi-zorroa askatu zuen disimuluz.

—Jo, eske krisketa horrekin ez naiz batere ondo moldatzen —bere burua zuritzen saiatur Xabierrek—.

—Tira, etorri —maitekiro hartu zuen besoetan Loreak, hamasei urte bete berriko neskatxen amatasunez.



Ikasleek aurrera jarraitu zuten txintxo-txintxo, hondakinen araztegi osoa zeharkatu arte. Luis edukiontzi izugarri baten alboan gelditu zen bat-batean, eta zangoak tentetuz, lepoa tinkatuz barrukoari begiratua eman zion, eta baita berehala atzera etorri ere hango kiratsak, barruko humore zitalak ezin jasanik.

—Puaj, hau nazka —baina oraingoan sudurrak atzamarrak estaliz berriro barrura begiratu zuen. Isurkin koloretsua zen, hainbat kolorekoa, arina, baina era berean lokatzezkoak ziruditen mordoiloiz josita. Antza dezente hartu zion jogurta mintzen denean sortzen den gazura eta gatzatuzko nahaste horri.

—Zer dago hor, jauna? —galdetu zion Luisek Agirre doktoreari.

—Likido izugarria da hori; ez duzue horra hurbildu behar, arriskutsua da. Hor metatzen dira taladrinen hondakinak. Taladrinak mekanizatuko jariakinen taldeko ekoizkinak dira, eta pieza eta erremintaren arteko ukigunean injektatzen dira egiten den eragiketa hobetzeko, hau da, gainazalaren akabera hobea lortzeko, ekoizpena handitzeko eta erreminta edo instalazioaren bizi-iraupena luzatzeko...



Loreak azkura sentitu zuen hankartean, halako berotasun goxo bat bere sakoneneko hodian zirkuituan. Xabier ia bere gainean zeukan, arnastetuka, gorri-gorri, lehertzera lihoa-keen lokomotoraren antzera. Ezkerreko izterraren kontra poltsatxo lodixko bat sentitu zuen, uda gorriko epeltasuna isurtzen zuen askatxoa. Mihiak sutondoko dantza eroan zebiltzan Xabierrek tenpluko ateei dei egin zienean, neska-zen izter arteko altxor ezkutuari. Loreak durduza sentitu zuen, eta zainak oro korritzen zizkion hotzikara lehorra, intimitate hezearekin lehian. Hasierako instintuak izterraz itxiaz zizkion, baina barruko suhar harrek, berriz, Xabierren esku leuna gora eta behera sentitze hark, itsaso urdinean murgiltzen den delfina gogorarazi zion.

“...Taladrinek beren baitan metal astunak, biozidak, germen kaltegarriak, usain txarreko deskonposizio-ekoizkinak, pozoiak, nitrosaminak, borozko konposatuak eta abar daramatzatenez, larruazalarekin ukitutuz gero sekulako sumindurak eta kalteak sor daitezke”. Agirre Doktoreak irentsi ezineko jardunean jarraitzen zuen, haririk gabeko hitz-jarioan, ikasleen arreta berea zuelakoan edo. Mariasuni titi azpian ere azkura sortu zitzaion nazkagarrikeria haiek entzunda. Bixenek, raka-raka, ezkerreko koskabiloari hazka egin zion inork ikusten ez zuelakoan “...igurtzimendu handia sortzen duten prozesuek, hala nola tutuen estrusioak, ahalmen lubrifikatzaile handia duten jariakinak erabiltzen dituzte...”. Mirenek kamiseta astindu zuen kolkotik; Mikelek hura ezin galdu eta bere metro laurogeiaz sorbaldaren gainetik bular aldea begiztatu zion betoker.



Lorea izerditan blai zegoen, eta Xabier, berriz, sukaturik; barruko makinariak puztu egiten zitzaizkiola sentitzen zuen mutilaren erremintak tamaina zalapartatsua hartzeaz batera. Bat-batean Loreak bultza egin zion Xabierri, atzeraka gogorki, larriturik, zerbaitek molestatu balu bezala. Hasierako ezulertuan, mutilak bereari jarraitzeko martxa hartu zuen, baina Loreak berriro ere gerarazi eta bere bizkarrera begira zezan eskuaz seinalatu zion. Parkea hutsik zegoen, han-hemenkako korrikalari goizalderen bat baino ez aldean. Eguzkia borobil oskarbian. Hasieran ez zuen Xabierrek ezer ikusi, baina badaezpada ere brageta ixteko ardura hartu zuen. Ondoren, parkeko bankuaren atzealdera begiratu, eta orduan bai, egundoko sustoa hartu zuen...

“Taladrinen egitekoa erremintak gainberotu daitezen ebitatzea da. Igarri egiten diote noiz eta non dabilen makineria behar den tenperaturatik gora, eta zati horretan isuri egiten dira, karraskautsak kentzeko”.

Itzal ilun bat ikusi zuen bere kokotearen parean, itzal kapusaitua, metro eta erdiko frantziskotar baten tankeran. Aurpegia estalirik zeraman.

“Isurketa ibaira egiten bada, taladrinak hain dira pozoi-tsua ze hilkortasun handia eragin dezaketan arrainetan...”

Bikoteak atzera egin zuen beldurrez, Xabierrek, instintiboki, itzalaren kapusaia heldu eta atzeraka bota zuen, burua agerian utziz. Aurpegi haren narda! Buru hark, buru deitza zilegi bada, ez zuen ez buru ez buztanik. Begiak lohizko osinak ziren, ezpainak lingirda iletsua; azala, berriz, muki eta lerdez egindako gurin ustela. Bi gazteek elkarri heldu zioten ikararen ikaraz harri eginda, eta izaki higuigarri hartatik zetorren kiratsak bertan seko utziko zituela pentsatu zuten une batez. Loreak titi-zorroa lotzeko keinua egin zuen hilaurreko ahalkean. Baina ez zion horretarako astirik eman ordea. Orduantxe, infernuko izaki hark bere aho moduko hura ireki zuen aharrausi hilgarrian, eta botaka egin zuen; oka. Haren eztairitik imajina ezineko isuri beltza jausi zen bi gazteen gainera, sufreaken tankerako uholde pairaezina. Loreari hasieran izterren gainean erori zitzaion, eta ahozabalik, garrasi ito batean ikusi zituen zangoak, hezurak, zainak, belauna... guztiak usteltzen eta desegiten bere begien aurrean. Lagunari begiratu zionean, ordea, hark ez zuen bururik, enborra baino ez begi eta hortz solteez manaturiko saltsa lodi batean nahasita. Apenas eman zion denborarik Loreari gorputzaren gainontzekoa ke moduko hats lodi batean urtzen ikusteko, isuri hark begiak jan zizkionean.



–Baina esadazu, andrea, –esan zion Gomez komisariok atzaldetik, bulegotik irtetera zihoan Inesi, kezko hodei baten artetik astun, garratz– zerk bihurtu zuen Sonia halako munstro, halako piztitzar, esadazu...

–Neronek ere ez dakit, jauna. Sonia emakume alai zen oso, sentibera, jendezalea. Lagunek biziki maite zuten bera, baina halako batean aldatzen hasi zen derrepentean. Aldartea ozpindu egin zitzaion, lagunekin ateratzeari utzi zion, edozerk sumintzen zuen, ez zen etxetik ateratzen, eta bere inguruak erabat jota utzi zituen bere haserrealditupusteko eta bortitzekin.

–Zerk baina, zerk... –komisarioa besaulkian eseri zen atzera, eta zigarroari putz eginez, sabaitik zintzilik zegoen haizagailuaren hegalei begira geratu zen.

–Soniak bere lana maite zuen edozeren gainetik –kontakizunean aurrera egin zuen Inesek–, maite zuen itzulpengintza, eta hartarako bizi zen. Hizkuntzaren gorabeherak txunditu egiten zuten, harrigarri dirudien arren, eta ordu luzeak ematen zituen liburu mardulen artean gauza ganorabakoena ere kontsultatzen –Inesek eten luzexka egin zuen bere mintzoan– ... eta lanak irentsi zuen noski. Behin itzulpen zerbitzuko burua etorri zitzaion bulegora, eta ehunka orriko liburua utzi zion mahai gainean, hiru urteren buruan itzuli beharreko liburu lazgarria industriako hondakinei eta birziklatzeari buruz. Eta hala eman zituen hiru urte luze, soto ilun batean hondakinak gora, hondakinak behera, gasak zirela ez zirela, fosfatoak, koipeak, olioak, simaurrak... hark erotu zuen seko. Harrez gero akabo gure betiko Sonia alai, barrezalea, maitagarria –zotinka eta mukia zeriola ezinean Ines andreak–. Hori nahikoa ez balitz, gainera kirats ustela hasi zitzaion ahotik ernetzen gure Soniari, demonioko halitosia. Behinola etxetik alde egin zuen gajoak, poliziak bere etxean gertaturiko triskantza deskubritu baino egun batzuk lehenago –dio Inesek apur bat bareturik, begietan gorroto izpi bat zuela– eta bizilagunek ez genuen berriro sekula ikusi, jainkoari eskerrak...

–Eskerrik asko, andrea, zure laguntzagatik. Sobera lagundu diguzu zenbait misterio argitzen, mila esker –esan zuen Gomez komisarioak aukitik altxatzen zen bitartean, Inesi kaleko atea zabaldu aurretik.



“...Taladrina erabili ahala, berezko ezaugarriak galdu egiten ditu, bestela esanda, zahartu egiten da, eta mikrobioen deskonposizioa hasten denean, eta ondorioz usaia ateratzen hasten denean, taladrinak agortu egiten dira...”

Nekaturik zegoen, ahiturik edo, haragiak guztiz bigundurik, erortzen ari zitzaizkiola sentitu zuen bat-batean, bereak egin zuela hainbeste aupatsen ildoan. Irribarre maltzurra bota zuen, zaratatsua, eta han bertan desegin zen, ustelkeriazko mantxa zabal bezain gordinean mamu okaztagarri hura; poliziaren sirenak airea urratu zuen istant hartantxe.



Komisaldegiko atea itxi zenean leihotik begira geratu zen minutu batzuez. Gizon lañoa zen komisarioa, bakeroen pelikulak eta igandetako futbola maite dituzten horietakoa, hamaiketako hamaiketaren egiten zuena, gauzei hamaika buelta eman gabe, akaso bere eguneroko zeregina korapiloak askatzea zelako hain zuzen. Berak ardoari “ardo” eta caldoari “salda”. “Makina bat tripa odolusten ikusita nago ni, hitzei ere zuku ateratzen hasteko”.

Hiriak ostertzeraino astintzen zuen bere isats berdea. Laino beltz lodi batek bazter guztiak estaltzen zituen, haizeak bat-batean herensuge gosetuaren eztairitiko galdarak itzali balitu bezala.

Martin Gartzandia
Idazlea



Iñaki Gabilondo:

“Gaur egun kazetaritzak kutsu sakratu bat eman dio bere buruari. Hari kritika eginez gero, askatasun eta demokraziaren etsai bihurtzen zara”

SER irratia non dagoen ez dakienik ez ei dago Madrilen. Iñaki Gabilondo esatari donostiarrak Gran Vía kaleko 32an egin digu harrera. Kanpoan euria ari du goian-behean. Udaz geroztik Espainiako hiriburuan ez duela atertu diote madrildarrek. Eta kazetaritzan? Aspaldi honetan badirudi kazetaritza bera dutela aztergai irrati, egunkari eta telebistetan. Kazetaritzak bere buruari begirutzen dio ispiluan, zer bihurtzen ari den jakin nahian. Gabilondori itaundu diogu eta hark Madrilgo zerua bezain goibel marraztu du paisaia. Haren ustez, etikaren lubakira sartzen bada bakarrik, salbatuko du bere burua kazetaritzak. Goardasola ekarri dugu, zer gerta ere.

Garai txarrak omen dira lirikarako...

Errealitate eta komunikazioari buruzko ikuspegi zintzo eta garbi baterako ditugu garai txarrak. Lirikoak barik, prosaikoak dira gaurko egunak. Ez da inozo edo ameslarientzako sasoa, aldean labana daramatenentzat baizik.

Ignacio Ramoneten ustez, hirurogeita hamarreko hamarkadan kazetariak heroien pare zebiltzan; egun, aldiz, madarikatuak dira. Hogeita bost urte baino gehiago eman dituzu irratian. Ados zaude?

Francoren diktadura hil-hurren zegoen hamarkada horretan.

Demokrazia desiratzen zutenentzat kazetaritza ohorezko behar bilakatu zen. Kazetaritza paperezko parlamentu antzeko bat bihurtu zitzaigun. Une hartan, berebiziko garrantzia izan zuen demokraziaren etorreran. Frankismoak ezin zien gizarte-antzerki gertatzen ari ziren aldeketei aurre egin. Neurri batean, kazetaritza tren-makina demokratikoa zen. Gaur egun, ordea, kazetaritzak ez du lehen zuen prestigioa. Batetik, prestigio hura normala ez zen egoera batek sortu zuen eta, bestetik, handik hona hamaika konturik prestigioa kendu diote; hainbat muga dituela onartu ez izana, esaterako. Gaurko kazetaritza, zenbaitetan, gizon-emakumeen askatasunaren aurka doan paperezko otsoa dugu; zenbait botereren alde lotsagabe agertzen den agentea; han-hemengo interesen defendatzaile sutsua...

Argi dirudi kazetaritza ez dela dagoeneko laugarren boterea.

Nire ustez, kazetaritza lehen, laugarren edo hamaikagarren boterea den jakitea ez da garrantzitsua. Kazetaritzak, berriz, beste botere batzuk ere badaudela onartu behar du eta bote-

re horiek errespetatu. Esate baterako, gaur egun, Espainian, kazetari ugari ez ditu botere judizialaren erabakiak onartzen. Hala *sumario-sekretua* nola *errugabetasun-presuntzioa* desagertarazi ditugu; erritmo demokratikoak bizkortu nahian-edo, askotan egurtu egiten dugu susmopean dagoena; epaile bihurtzen dugu geure burua eta irrigarri uzten ditugu geroko erabaki judizialak... Esan dudan legez, ez dut uste oso garrantzitsua denik botereen sailkapenean zein tokitan dagoen jakitea. Kazetaritzak ikasi behar du bereizten zein diren dagozkion esparru eta eginkizunak. Gaur egun,

ordea, kazetaritzak kutsu mitiko eta sakratu bat eman dio bere buruari. Hari kritika eginez gero, askatasun eta demokraziaren etsai bihurtzen zara.

Beraz, kazetariok geure egin behar ditugu hainbat erantzukizun...

Lehenik eta behin, kazetaritzak bere botereari jarri behar dio galga. Berri edo albisteen egiazkotasuna ekarri gura dut puntu honetara. Hemen ez dago salbuespenik egiterik, berriek ez dute gezurrik kontatu behar, eta

ez dute ez denik aipatu behar. Kode deontologikoak xedatzen du hori. Espainian, berriz, jende guztiak ez ditu berriak egiaztatzen. Askotan, gainera, egiaztatzea ez da beharrezkotzat jotzen, informazioa alde aurretik diseinaturiko borroka baterako sutautsa besterik ez baita. Berriek, bada, egiazkoak izan behar dute. Estatu Batuetako edo Alemaniako kazetari batek entzungo balit, galdetuko lidake zer dela-eta gogorazten ari naizen Peruren egiok. Nire ustez, komunikazioa botere ikaragarri bihurtu dela ahaztu gabe, kazetariok ez genituzke hedabideak gainerako botere-zapaltzailetzat hartu behar. Gai izan behar dugu atzera egiteko, onartzeko egiaz-

“Mitinetara bezala hurbiltzen bada jendea hedabideetara, kazetaritzarenak egin du”

tatu gabeko berriak ez direla baliagarriak, konturatzeko iritziek, gogorak izan arren, gizatasunak ezarritako mugak dituztela. Eta hau guztia ez da Espainian gertatzen, noski.

Irratian, zenbait kasutan, zailagoa bide da kontrolak ezartzea. Solasaldiak edo eztabaidak datozkit burura.

Kontuz ibili beharra dago. Solasaldiak oso produktu zehaztugabe, irristakor eta bat-batekoak dira. Plazaratuz gero, askatasunez zein erantzukizunez jokatu behar da. Bestalde, solaskideek argi eduki behar dute irratsaio horren helburua ez dela ikuskizun hutsa. Geure solasaldia ez da egurrik gehien ematen duena, ez da gogorrena. Hala ere, geuk daukagu entzulerik gehien. Honek poztu egiten nau. Irratia bezalako hedabide batean, esparrua irekiago eta zehaztugabeagoa denez, gehiago arriskatzen badugu ere, erantzukizun handiak ditugu hala hautatutako jendeari dagokionez nola ezarritako joku-arauei dagokionez. Urrunegi joaten ari garela uste dut, oso gai garrantzitsu batzuetan malabarismoak egiten ari gara esku-bonbekin. Euskadiko egoera politikoarekin zerikusirik duten gaiekin kontu handiz jokatzeko dugu, ez gaude prest horrelako gai garrantzitsuekin jolasean ibiltzeko. Oso bestelako gauza da hainbat ikuspuntu agertzea, noski, baina irainik gabe agertu behar dira, gezurrik gabe... Ni neu ez nago prest solasaldiak abertzaletasuna astintzeko toki bilakatzeko.

Zer merezi duen kontatzea eta zer ez kazetaritzaren beste alde bat da, eta ez nolana hiko gainera. Ematen dena eta ematen ez dena.

Gizon-emakumeok ditugun hautaketa-irizpideak dira lanbide honen oinarria. Irizpide horien arabera, jendeak ezagutu eta epaitu egiten zaitu. Hau saihestezina da. Zertan datza kontua, orduan? Errespetuz edo errespetu barik jokatzeko, erantzukizunez edo erantzukizunik gabe. Baina informazioa balorazio eta hautaketa batzuei jarraituz kaleratzen da, ezinbestez. Nork bere aukerak egiten ditu.

Baina zer gertatzen da hedabideak oso ideologizaturik daudenean?

Gaur egun hedabide guztiak daude oso ideologizatuta. Zein irizpide ideologikok erabakitzen du ehun mila indioen heriotzak ez duela merezi egunkariari albiste nagusia izatea? *SER* edo aldizkari honetan lan egiteak errealitatea begiratzeko modu bat baldin badakar, ongi dago; baina errealitatearen diseinu bat erabakitzen baldin badu, gaizki dago. Errealitateari pentsaera atzerakoi, aurrerakoi, marxista edo nazionalista batekin begiratzeko ondo dago. Ez da baliagarria, ordea, esatea errealitate horrek ez dakarkiola mesederik nire pentsaerari eta, hortaz, ez dudala aukeratzeko. Hona hemen gure arazo nagusia: kazetariok ez bagara gauza arazo hau konpontzeko, kazetaritza luze gabe hil egingo da. Noraino iritsi gara? Gaur egun, sarri, irakurle, entzule eta ikusleak ez dira hedabideetara gerturatzen errealita-

teari buruzko begirada bat jasotzera, euren ikuspuntuak baieztatuz edo buru-bihotzak berotzera baino. Askotan, mitinetara bezala hurbiltzen da jendea komunikabideetara. Norberak esan beharko du bere artean noraino iritsi garen. Ni neu ez nabil eze-roso *SER* irriaren ildo editorialean, baina ez dut uste hori denik gaiak aukeratzeko dudako sistema. Edo, behintzat, hori izan ez dadin ahalegintzen naiz egunerok.

Ematen du gure irtenbide bakarra kode deontologikoari eustea dela.

Gaur egun zein kazetari ari dira ikuspuntuak agertzen? Zein kazetari ari dira gertaerak bere errotetara eramaten ildo editorialari komeni zaizkion irinak egiteko? Denetarik dugu, bistan dago. Bigarrenaren adibide ugari baldin badugu, kezkatu beharra daukagu. Jakina da niretzat terrorismoa erokeria hutsa dela eta haren aurkako oso jarrera militantea dudala. Dena den, ez dut uste horrek trabarik jartzen didanik gertaerei buruz naturaltasunez mintzatzeko. Izan ere, kazetariok gertaerekin dugu konpromiso militantea. Isildu beharrean gaude gure gustukoa ez den gertaera bat jazotzen bada? Meliton Manzanasen adibidea aipatuko dut. Terrorismoaren aurkako ildo editorial bat edukitzearen, ezin dut esan Manzanak kondekoratzea lotsagabekeria galanta dela? Bada, horrela iruditzen zaidanez, horrela adierazi nuen. Gaur egun gero eta premia-zaioagoa da berriak eta iritzia bereiztea. Beste kontu batzuetan bezalaxe, zoritxarrez, kazetaritza mistika edo gurutzada antzeko bat bihurtzen ari da.

Multimediaren iraultza sartu zaigu etxe barrura. Zer deritzezu American On-Line (AOL) eta Time Warner-ek sorturiko

gisako komunikazio-talde erraldoiei?

Horrek ez nau larregi kezkatzen. Etikaren lubakira sartzen bada baino ez du salbatuko bere burua kazetaritzak. Horixe da nire itxaropen bakarra. Eta estatubatuarrek lortzen ari dira. Nahiz eta han komunikazio-talde handiak izan, kazetaritzak errespetu puntu bat iritsi du. *Washington Post* edo *New York Times*-ek badakite zer dioten, zer kontatzen duten. Espainian, ordea, kazetaritzak mugarik ez duela sinetsirik, etikaren hesia apurtzen ari gara. Gogora datorkit Cardus soziologoak *La Vanguardian* idatzitako artikulu bat. Orain aste batzuk, elkarriketa luze bat egin zioten Xabier Arzalluzi irri batean. Amaitutakoan, beste irri batzuetan haren hitz batzuk, garrantzirik gutxien zutenak hain zuzen ere, testuingurutik atera eta hura gupidarik gabe egurtzeko erabili zituzten. Ohituta gaude, tamalez. Puntu honetan kazetaritza oso larri dugu, ez baita gai errealitatea ikusi eta begiratzeko ikuspuntu ideologiko batetik. Espainian partzialitatea ez dator ikuspuntu ideologiko horretatik begiratzetik, errealitatea faltsutzetik baizik.

Lutxo Egia
Kazetaria

Euskararen erabilera arautzeko arautegien bilakaera Nafarroan (1986-2001)

Euskararen Legea 1986an onartu zen, 1982ko LORAFNan oinarritua, berezko hizkuntzaren ofizialtasuna Autonomia osoan onartzen ez duen Estatuko hizkuntz Lege bakarra, hain zuzen.

Administrazio Publikoetan Legea garatzeko lehenengo erabaki legala 1994ko martxoan, bost urte eta erdi geroago, onartu zen. UPNren Gobernu batek hartutako neurria bazen ere alderdiko hainbat sektorek egindako presioen ondorioz 4 hilabete beranduago helburu apalagoak zituen dekretu berri bat onetsi zen. 135/1994 Foru Dekretuaren xede nagusiak hauek ziren (1.2. art.):

- Eremu euskaldunean: berdin erabili ahal izatea bi hizkuntza ofizialak.
- Eremu mistoan: herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko behar diren langileak euskaraz prestatzea.
- Administrazioaren zerbitzu nagusietan zerbitzuak euskaraz ematea bermatzeko aski diren administrazio zirkuitu elebidunak ezartzeko behar hainbat langile prestatzea.

Zerbitzu nagusiak, Nafarroako biztanleria guztiari zerbitzua ematen diotenak dira. Urtebeteko epea eman zen, helburua erdiesteko behar ziren planak egiteko. Plan hauek ez ziren egin eta 1995eko abenduan eta PSN-CDN-EAk osatutako Gobernuak hizkuntza normalizazioa hobetzeko plana onartu zuen. Dekretuaren aplikaziorako egutegia finkatu zen, baina 1996ko uztailean Gobernuak desegin zen eta ez da inoiz aplikatu.

2000ko martxoan UPNk eta PSNk bultzatutako oso kanpaina mediatiko gogorra abiatu zen. Mezu nagusiak hauek izan ziren:

- Nafarroan erdaldunak baztertuta daude euskaldunek funtzio publikoan sartzeko abantaila dutelako.
- Euskararen erabilera inposatzen ari da.
- Euskaraz ez du mundu modernorako balio, hobe da “hizkuntza modernoak” ikastea.
- Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak, UPNren Gobernuak izendatua, euskararen aldeko politika nazionalista egiten du.

Inolako oinarririk ez zuten iritzi hauek aldaketarako abiapuntua izan ziren: maiatzean Parlamentuan gaia eztabaidatu ondoren Gobernuak Dekretu berri bat eginen zuela iragarri zuen, ekainean Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko arduradunek dimititu zuten.

Dekretu berria (372/2000 F.D.) aurrekoarekin alderatzen badugu, ezartzen diren helburuak “antzekoak” eta edukiak erabat ezberdinak direla ikusten da. Helburuetan aldaketa nagusia zirkuitu elebidunen aipamena ezabatzea izan da. Aurreko Dekretuak harremanak herritarrek aukeratutako hizkuntzan bermatu ahal izateko neurriak zehazten zituen (oso leunki aplikatu direnak gainera), baina Dekretu berria gaztelaniaren erabilera bermatzeko eta euskararena oztopenazko onartu dutela dirudi. Hauek dira nabarmendu daitezkeen neurriak:

- Eremu mistoan. Foru Administrazioiko egoitza gehienak hemen dauden arren, eremu mistoko trataera eman zaie:
 - Barreneko inprimaki ofizialen idazpuruak gaztelania hutsean. Gainerako inprimakiak gaztelania hutsean, lehen-tasunez erabiliko dena (elebiduna espresuki eskatzen bada).
 - Errotuluak eta zigiluak gaztelania hutsean.
 - Seinaleak gaztelania hutsean. Agindutakoa betetzen ez dutenak lehenbailehen kenduko dira.
 - Dokumentu eta jakinarazpenak: normalean gaztelania hutsean. Elebiz bakarrik eremu euskaldunean hasitako prozedurak badira eta espresuki eskatzen bada.
 - Ahozko atentzioa: Baliabide egokiak dauden unitateetan kontseilariak baimena eman dezake euskarazko atentzioa eskatzen duen herritarri halakoa emateko. Ezin bada eman, itzulpen zerbitzuak erabiliko dira.
 - Euskara nahitaez jakin beharreko lanpostuak: bakarrik itzultzaile edo irakasle lanpostuetan.
 - Euskara merezimendu gisa baloratzeko prozedura: frantseza, ingeleza eta alemanaren pare jarri da.



- Eremu euskaldunean bi hizkuntzak ofizialak dira baina, gehiengoaren hizkuntza den euskarari bigarren mailako balioa ematen zaio:
 - Gaztelania errotuluetan: errotuluak elebidunak direnean, gaztelaniazkoaren lekua irakurlearen lekutik begiratu ezker-ezkerrekoa izanen da edo goi-goikoa.
 - Errotuluak, idazpuruak eta inprimakiak gaztelaniaz, euskaraz edo bi hizkuntzetan (beraz, ez da bermatzen errotulu elebidunak jarriko direnik).
 - Bideetako seinaleak: gaztelaniaz edo bi hizkuntzetan.
 - Herritarrei igorritako agiri edota jakinarazpenak normalean gaztelania hutsean eginen dira.
 - Ahozko atentzioa euskaraz hala eskatzen duten herritarrei. Ezin bada, itzulpenaren bidez.
 - Lanpostuetarako eremu mistoko irizpide berberak aplikatuko dira.

Ez dugu Dekretu berriaren balorazio luzeagoa eginen irakurleak oso erraz igarriko baitu zein den Gobernuaren asmoa: euskararen erabilera ia ezinezkoa bihurtzea.

Mikel Arregi Perez
Sabino Cuadra Lasarte
 Nafarroako Gobernuako teknikariak

EUSKAL HERRIKO PARKE NATURALAK

Natura zuzenean ezagutzeko eta berarekin gozatzeko parada eskaintzen dute parke naturalek. Babestutako gunetzat hartzen dira eta euren helburu nagusia hauxe da: erabilera publikoa eta berreskuratze ekologiko, estetiko eta hezitzailea uztartzea. Gune hauen izendapena, kudeaketa eta legedia ezberdinak dira Euskal Herriko hiru administrazioetan.

NATURA 2000 SAREA

Gune naturalen multzoa da eta bere xedea Europako bioaniztasunari eustea da. Ekosistema ezberdinak aztertu eta, irizpide batzuen arabera, zein landare eta espezie babestu behar diren erabakiko da. Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuak beren proposamenak egin dituzte dagoeneko. Orain Europako Komunitateen Kontseiluaren onespena jasotzea falta da. Hasieran aurkeztu zen babestutako guneen zerrenda motz gelditu denez, bigarren zerrenda zabalago bat egin da. Aipatuko ditugun parke natural gehienak sare honetakoak dira.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Euskal Autonomia Erkidegoko parke naturalek *Babestutako Gune Naturalen Sarean* sartzen dira. Zazpi parke daude gaur egun izendatuta:

Aiako Harria (Gipuzkoa)

Donostia eta Irun artean dagoen parke hau Nafarroa eta Iparraldearen mugetaraino heltzen da. Pirinioetako menditearen bukaeran dago, eta bertara heltzeko bide ugari dugu: Oiartzundik eta Irundik barna, edota Lesakatik, Artikutzako urtegitik, Hernanitik eta Irundik... Itsasertza eta Txingudiko badia gertu daude. Harritsu bada ere, hariztiak eta pagadiak nonahi ikus ditzakegu. Bertako urak Bidasoa, Oiartzun eta Urumea ibaiek jasotzen dituzte. Oiartzun aldetik igoz gero, historiaurreko monumentu megalitiko asko topa ditzakegu Bianditz gainean.

Aralar (Gipuzkoa eta Nafarroa)

Gipuzkoan eta Nafarroan dago Aralar. Gipuzkoan, Goierri eta Tolosaldean; Nafarroan, aldiz, Uharte, Lekunberri eta Betelu artean. Amezketatik, Zaldibiatik eta Etxarri-Aranatzetik hel daiteke bertara. Erkidegoko leku menditsuena da. Gailurrik garaiena Irumugarrietako gaina da (1.427 m). Ardi, zaldi eta behi ugari ikusiko duzu paraje horietan.

Pagoeta (Gipuzkoa)

Aia, Zarautz eta Zestoa artean dago. Zarautz eta Billabona lotzen dituen bidetik hel daiteke bertara. Kostaldetik hamar bat kilometrora dago. Pagoeta mendia Aia eta Laurgain herrixken artean irtetzen den gailurra da. Nekazaritzari lotutako lurak dira.

Izki (Araba)

Izki bailara Arabako ekialdean dago, Maeztu, Bernedo eta Kanpezu artean, hain zuzen. Kantabriako mendizerrarekin muga egiten du. Gasteiz-Lizarra errepidean, Maezturako norabidea hartu eta Korresera bitartean aurkituko dugu bertara iris-

teko sarrera. Kapildui (1.177 m) mendia da gailurrik altuena. Ametz zuhaitzez beteriko basoa izatea da gune natural honen ezaugarrietako bat. Errekak eta hezeguneak nagusi dira bertan.

Valderejo (Araba)

Arabako mendebaldeko muturrean dago parkea, Gaubea herrian. Burgosekin muga egiten du. Gaubeatik Lalastra eta Lahotzeraino iritsitakoan, parke honen sarrera aurkituko dugu. Lurra aldapatsua eta harritsu da, kareharrizko amildugiz inguratutako harana baita. Puron ibaia da parkeko ibairik handiena, eta Burgos zeharkatu ondoren Ebron amaitzen da.

Urkiola (Araba eta Bizkaia)

Durango, Atxondo eta Aramaio inguruan zabaltzen da parke hau. Durangotik edota Otxandiotik abiatuta, Urkiolako mendatearen gainera iritsita hel gaitezke gune honetara. Bertan ugari aurkituko dugun urkia zuhaitzak ematen dio izena inguruari. Gailurrik altuena Anboto (1.330 m) mendia da. Historiaurreko aztarnak eta leize-zuloak ere ikus daitezke.

Gorbeia (Araba eta Bizkaia)

Zuia, Orozko eta Arratia bailaren artean dago Gorbeia. Altubeko eta Barazarko bi mendateetatik hel daiteke parkearen sarrerara. Ia 1.500 metroko altuera duen mendiaren izena darama. Oso menditsuena, Erkidegoko parke naturalik handiena da. Latxa ardia, behiak eta zaldiak dira hango benetako protagonistak.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Bertizko jaurerria

Baztango bailaran dago, mendialdean. Bertizarana udalerriari dagokio eta Nafarroako Gobernuak herentziaz jasotakoa da. Mugairitik barna hel daiteke parkera. Bi mila inguru pago eta haritz ditu. Jauregia eta "Tenientetxea" baserria daude bertan, eta inguruan 120 zuhaitz eta zuhaixka mota ezberdin dago.





Urbasa eta Andia

Nafarroako mendebaldean dauden bi mendizerra dira. 1997an parke natural izendatu zuten ekologia, arkeologia eta paisaia aldetik daukan balioagatik. 20.000 hektarea pasotxoko hedadura du guneak. Sakana aldetik edota Olazti aldetik hel gaitzeko haraino. Azken bide honek mendizerra punta batetik besteraino zeharkatzen du. Ganadu-pistetan sartzea debekatuta dagoen

arren, errepidean autoz joan daiteke. Pagadiz beteriko ibilbidea zeharkatzen da. Behi, zaldi eta ardi ugari daude.

Errege Bardeak

Nafarroan hego-ekialdean dago, Aragoi eta Ebro ibaien artean, hain zuzen. Erriberako gune natural hau erdi-desertikoa da, 400 kilometro karratu ditu, eta bi zati: “Bardea Zuria” eta “Bardea Beltza”. Artzaintzako leku aproposa da. Argetasetik barna iritsi daiteke Bardea Zurira. Bardea Beltzara ailegatzeko, berriz, Tuteran inguruan Ejea de los Caballeroserako bidea hartu behar da.

Iratiko basoa

Gune naturala izan arren, ez dago parke natural izendatuta. Europako pagadirik handienetakoa bertan dago. Basoaren gailurrik garaiena Orhi mendia da (2.021 m). Irati ibaiaren hasieran dago. Zati handiena Nafarroan badago ere, Behe-Nafaroraino iristen da. Hegoaldean Salazar eta Aezkoako haranek kudeatzen dute basoa. Orbaitzetatik eta Otsagitik sar daiteke, Elurretako Amabirjinaren ermitarako bidea harturik. Zaraitzuko haranak markatutako zortzi ibilbide ditu, horietatik lau, ermita ondoan hasten dira. Aezkoako haranak, bestalde, basoa punta batetik bestera zeharkatzen duten pistak markatuta ditu.

IPARRALDEA

Iparraldean parke natural izendatutako gunerik ez dago. 1985az geroztik Pirinio Atlantikoetako Departamentuak du gune natural sensibleak kudeatzeko ardura, eta Departamentu bakoitzak era-

	AIAKO ARRIA	ARALAR	PAGOETA	IZKI	VALDEREJO	URKIOLA	GORBEIA
Probintzia	G	G-N	G	A	A	A-B	A-B
Aparkalekua	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai
Kanpina	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai
Ibilaldiak oinez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Bizikleta	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Bai
Zaldia	Bai	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Bai
Uretako ekintzak	✓ Arroilak jaitsi	✓ Arroilak jaitsi	✓ Surfa ✓ Urpekaritza ✓ Arrantza	✓ Arroilak jaitsi	Ez	Ez	Ez
Hegaztiak ikusteko tokiak	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Mahaiak eta eserlekuak	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Nekazal turismoa	13	11	22	9	4	10	13
Bestelakoak	✓ Eskalada ✓ Aiztondoko ur-jauzia ✓ Putreak	✓ Eskalada ✓ Fondoko eskia ✓ Irteerak, ✓ San Miguel Santutegia	✓ Golfa ✓ Eskalada ✓ Espeleologia ✓ Zubi-jauzia ✓ Oreinak eta basurdeak ✓ Iturraran baserriko museoa ✓ Agorregiko burdinola	✓ Golfa ✓ Orientazioa ✓ Eskalada ✓ Rappela ✓ Zubi-jauzia	✓ Villamardones eta Erribera herriak ✓ Erromanikoko arrastoak eta Erdi Aroko margo bitxiak putreak	✓ Rappela ✓ Eskalada ✓ Arku-tiroa ✓ Espeleologia ✓ Putreak eta belar erromesak	✓ Rappela ✓ Eskalada ✓ Arku-tiroa ✓ Orientazioa ✓ Goiuriko ur-jauzia

baki dezake gune bat babestu ala ez. Hezeguneak, errekek eta basoak babestu nahi izan ditu Departamentuak orain arte izandako politikaren bidez.

Abbadia

Estatuarena da. Hendaian dago eta 100.000 pertsona baino gehiagok bisitatzen dute urtero. Bertako gaztelua ikusteko bakarrik ordaindu behar da. Belardi paregabeek eta amildegiek osatzen dute paisaia ikusgarri hau. Eskoletako umeentzat prestatuta dago, batez ere.

Larrun mendia

Departamentuko lekurik bisitatuena da, 300.000 bisitari izaten baititu urtero. Azkaine eta Sara artean dago. Bertara igotzeko hartu behar den trenak ezaguna egin duen arren, oinez ere igo daiteke. Autoentzako prestatutako biderik ez dago. Trenean igotzeko ordaindu egin behar da eta urte osoan eskaintzen da zerbitzu hau. Egunpasa bat egiteko leku aproposa da, eta baita gailurretik itsasoa eta kostalde osoa ikusteko ere.

Seinalatutako ibilaldiak


Ibilaldiei buruzko liburuxka bat argitaratu dute Amikuzeko Komunaren Biltzarrak eta Iholdiko Kantoiko Sivomek. Bertan, egin daitezkeen hiru, lau eta bost ordutako ibilaldiei buruzko xehetasunak azaltzen dira. Oinez, bizikletan, zaldian eta astoan ibil daiteke. Bizikletak alokatzen dira eta txangoak antolatzen dituen enpresa bat dago.

Itsasertzeko pasealekua. Proiektua

Hendaiatik hasi eta Bidarte bitartean pasealekua egiteko asmoa du Departamentuak. 23 kilometroko luzera izango du eta datorren urterako egin egotea espero da. Bide hau seinalatuta egongo da eta zortzi aparkaleku izango ditu.

Beste leku interesgarri batzuk

Baionako Lazaret basoa, Angeluko Xiberta edo Pignada basoa, Bidarteko Erretegia, Miarritzeko Morriscolakua, Kakuetak Arroila Zuberoan eta Euskal Erlaitza dira natura maite dutentzako beste leku interesgarri batzuk. Landare eta zuhaitz-mota asko daude eta arrasto geologikoak ikusteko aukera ematen du.



	BERTIZ	URBASA ANDIA	ERREGE BARDEAK	IRATI	ABBADIA	LARRUN
Probintzia	N	N	N	N	L	L
Aparkalekua	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Kanpina	Bai	Ez	Ez	Bai	Bai	Ez
Ibilaldiak oinez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Bizikleta	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai
Zaldia	Bai	Ez	Bai	Bai	Ez	Bai
Uretako ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Raftinga ✓ Piragua ✓ Arroilak jaitsi 	Bai	Ez	Ez	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Surfa Hendaian 	Ez
Hegaztiak ikusteko tokiak	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Mahaiak eta eserlekuak	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Nekazal turismoa	38	4	Ez	25	—	—
Bestelakoak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zubi-jauzia ✓ Eskalada ✓ Naturaren Interpretazio Zentroa 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Jatetxea ✓ Jarduera ugari haurrentzat batez ere 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 4*4 Ibilgailuak alokatu ✓ El Serial urtegia 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Eskia ✓ Irabiako urtegia ✓ Oreinak ✓ Basurdeak eta urtxakurrak 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Abbadiako gaztelua ✓ Ingurugiroaren heziketarako zentroa ✓ Hegaztiak 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Leize-zuloak ✓ Sarako leize-zuloak

NEREA PIKABEA
Kazetaria

Euskaltzaindiaren WEBetik honako arauak

Dakizunez, Euskaltzaindiak badu txoko bat Interneten: www.euskaltzaindia.com. Hango 'Produktuak eta Zerbitzuak' atalean eskuragai daude orain arte emandako arauak baita Hiztegi Batua ere. Eta bertatik ekarri ditugu hiru arau berri hauek: komunztadura aposizioetan, iraupena eta maiztasuna adierazteko sintagma zenbatzailedunak eta izen sintagmen arteko juntadura. Gogoratu: adibideetan izartxo (*) duten esaldiak ez dira gomendagarriak.

KOMUNZTADURA APOSIZIOETAN

Adjektiboak adierazten du ondoan duen izena nolakoa den. Baina, askotan, adjektiboaren zeregin hori beste izen batek edo izen sintagma batek betetzen du: horixe da aposizioa. Hortaz, bi aposizio mota daude:

1.- **Izen-sintagmaren barnekoa:** izen batek betetzen du adjektiboaren zeregina. Ez dago komunztadura edo *konkordantzia* arazorik, kasu-marka sintagmaren amaieran doa eta lehen izenak ez darama mugatzailearik:

Īnaki Egurrola irratiko esatariak egingo du aurkezpena.

Irratiko esatari Īnaki Egurrolak...

**Irratiko esataria Īnaki Egurrolak...*

Izen berezi batzuek, ordea, osagai egina dute mugatzailea: erregeen izenak, aita santuenak, goitzenak. Horietan gorde egiten da mugatzailea:

Joan Paulo **II.a** Aita Santuak...

**Joan Paulo II. Aita Santuak...*

Pernando Amezketar**a** bertsolariari...

**Pernando Amezketar bertsolariari...*

2.- **Izen-sintagma artekoak:** izen-sintagma batek betetzen du adjektiboaren zeregina. Kasu-marka sintagma guztien amaieran ipinita gauzatzen da:

*Jose Mari Arriag**ak**, gurekin ikasi zuen**ak**, liburu bat idatzi du.*

*Edortari, azken ikastaroa eman zizun irakasle**ari**, eskatu beharko diozu aholkua.*

Komunztadurarik ez duen aposizioak, berriz, lekukotasun urriagoa du tradizioan, eta, hortaz, **ez da gomendatzekoa**:

*?Jose Mari Arriag**ak**, gurekin ikasi zuen**a**, liburu bat idatzi du.*

*?Edortari, zure lankide**a**, eskatu beharko diozu aholkua.*

Dena dela, sarriago gertatzen da hori euskara mintzatuan, idatzian baino, eta ez dira benetako aposizioak, aparteko eranskin edo tartekiak baizik. Horregatik, ez da komunztadurarik egiten, idaztean, ordea, errazago onartzen dira marra luzeak erabilia; adibidez:

Aritz Ansolak –tripazale galanta bera– aitaren batean jan zituen ogitartekoak.

NOLA ADIERAZI IRAUPENA SINTAGMA ZENBATZAILEDUNETAN

Absolutiboa, instrumentala eta inesiboa erabiltzen dira:

Absolutibo mugagabea (ZER): *Hiru urte egon nintzen ikasten.*

Instrumental mugagabea (ZEREZ): *Hiru urtez egon nintzen ikasten.*

Inesibo (NON) singularra edo mugagabea erabiliz bi aukera ditugu:

– **Mugatu singularra.** Denbora etengabeko unitate bakar gisa hartzen da. Demagun orain dela hiru urte hasi naizela ikasten eta orain bukatu ditudala ikasketak:

Hiru urtean egon naiz ikasten.

– **Mugagabea.** Epeka edo sasoi ezberdinetan egindako ekin-tzak. Demagun lau aldiz joan naizela Irlandara udako oporrak pasatzera:

Lau urtetan joan naiz Irlandara oporretan.

NOLA ADIERAZI MAIZTASUNA SINTAGMA ZENBATZAILEDUNETAN

X BEHIN esamoldea:

Mugagabea erabilia: *lau urtez behin, lau urtetarik behin, lau urterik behin.*

Mugatu singularrarekin: *lau urtean behin, lau urtetik behin.*

X-tik/-rik X-ra esamoldea:

Singularrean zein mugagabea: *lau urtetik lau urtera; lau urtetarik lau urtetara.*

-ERO atzikia:

Onartzekoa da *izena+ERO* gisakoa denean: *Astero, hamabos-tero, urtero.*

Gaitzestekoa da *zenbatzailea + izena + -ero* esamoldea: **Bi urtero, *lau urtero.*

IZEN SINTAGMEN ARTEKO JUNTADURA

Pertsona izenordainak elkartzen direnean, izenordain guztiek daramate kasu marka:

Nik, zuk eta Albertok egingo dugu kontzertua.

**Ni, zu eta Albertok egingo dugu kontzertua.*

Singularreko sintagma elkartzen direnean, guztiek marka hartzea gomendatzen da:

Etxean, autobusean eta lantokian egiten du lo horrek.

Kasu marka amaieran bakarrik jartzea posiblea da, juntatzen diren izenen esanahiak oso hurbilak baldin badira: Gorputz eta arimatik atera zitzaion garrasia.

Pluraleko sintagma elkartzen badira, bietara egin daiteke, kasu marka amaieran jarrita edo guztiek hartuta:

Ikastetxeko langile, irakasle eta ikasleekin egin zuen bilera zuzendariak.

Ikastetxeko langileekin, irakasleekin eta ikasleekin...

Kasu marka amaieran bakarrik jarri bada, ezin zaio lehen hitzari determinatzailea jarri, hots, -A(K) artikulua kendu egin behar zaio: **Alkate**a** eta zinegotziekin osatuko dugu batzordea.* Hobe honela:

Alkate [edo alkatearekin] eta zinegotziekin osatuko dugu batzordea

Genitibodun [NOREN] sintagmetan ere ez da zilegi lehen hitzari determinatzailea jartzea: **Zuzendaria eta irakasleen arteko bilera.* Horren ordez, hobe honela:

Zuzendari [edo Zuzendariaren] eta irakasleen arteko bilera.

Aitor Gorostiza
HAEEko teknikaria

ABERE EROEN ETXALDEA

Gauza jakina da George Orwell idazle britainiarrak Bigarren Mundu Gerraren ostean idatzitako *Animal Farm* hartan estatu sobietarraren gehiegikerien aurkako kritika zorrotza zegoela. Hain zen zorrotza, argitaratzeko arazoak izan zituela, non eta gerraosteko Erresuma Batu hartan Stalin baitzuten aliaturik zainduenatarikoa. *Animal Farm* hark alegia politikoaren itxura hartu zuen, eta alegia guztiek bezala mezu moral bat igorri nahi zion irakurle helduari (nahiz eta gero haurrentzako moldaketa ugari egin diren).

Batzuen ustez, Orwell-i eskua joan zitzaion denbora aurrera joan ahala erotuz zihoan diktadore hari Napoleon izena eman zionean; eta areago zerri itxura eman zionean, baina etxaldeko abere guztien artean aukeratu beharra zegoen, eta alegietako animalien sailkapenari ihes eginik (non zerria abere alfer baketsu axolagabea baitzen), irain biribilenaren bidetik jo zuen “zerria” hitza zentzu osoz jatzeko. Gaur egun, etxaldea dagoen bezala egonda honela konta zitekeen “Abere eroen etxaldea” istorioa:

Jones jaunak, Betigizen etxaldeko jabeak, axolagabe eta danbateko ozen batez itxi zuen oilategiko atea, arratsero bezala mozkor-mozkor eginda zegoelako. Jones jauna oheratu eta etxalde osoan soinu bat ere aditu ez zenean, abere guztiak ukulura biltzen hasi ziren. Denak iritsi zirenean, Ardia izan zen hitz egin zuen lehena:

–Lagunok –hasi zen– gure bizi-tzak motzak eta miserableak dira. Gutako batzuk lanean jartzzen gaituzte urtetan zehar indar

apurrik geratzen ez zaigun arte, eta orduan, ezertarako gai ez garenean, kupidagabe hiltzen gaituzte. Beste batzuei neurri-gabeko bazka ematen digute; ez, garai batean bezala, larreetako belar fresko eta goxoa, pentsu okaztagarria baizik; eta nahikoa gizen gaudenean, hil egiten gaituzte, kupidagabe orobat. Ondo pentsatu hau! Egoera honek ezin du luze iraun! Zapaltzaileen aurka altxatu eta matxinatu egin behar dugu! Une horretan, gau hartan bildutako abere guztiak txaloka hasi ziren, eta oihuka, “matxinada!”, “hil ditzagun geure hiltzaileak!”. Plan bat egiten hasi ziren orduan; eta, iraultza guztietan bezala, martiriak behar zirela erabaki zuten. Gainontzeko abereen askatasun helbururako, abere gutxi-askok beren bizia eman behar zutela, alegia. Eta hala egin ere bai: hiltegiara eraman behar zituzten abereak pozoitu egiten ziren, haien okela jaten zuten gizakiak ere pozoiturik hiltzeko. Dena oso ondo pentsatuta zegoen: hildako abere bakoitzeko, ehun bat gizaki hilko ziren era hartara.

Handik urtebetera edo, plan haren lehenengo emaitzak ikusten hasi ziren: gizaki asko hil ziren, eta gizateria beldurrik airean zegoen. Eta, egoera haren ondorioz, abereen etxaldean gero eta animalia gutxiago hiltzen ziren, gero eta bake-suago bizi ziren. Eta Ardia era guztietako erosotasunez



“Plan bat egiten hasi ziren orduan; eta, iraultza guztietan bezala, martiriak behar zirela erabaki zuten”

inguratu zen, abere orenen jaun eta jabe iraultzaile gisa.

Baina, luze gabe, zorientasun hura haustera etorri ziren gertaera batzuk gertatzen hasi ziren: batean Ardiaren egoitza sute handi batek erre zuen, bestean arkume batzuk hilik agertu ziren etxaldetik hurbil, eta azkenik Ardia bera ere hamaika sastada jota hilda aurkitu zuten bere egoitzan bertan.

Handik gutxira, Behiak, adarrak artean odoleztaturik zituela, bilera batera deitu zituen abe-

reen ordezkari beldurtuak, eta honela hitz egin zien:

–Lagunok, iraultza aurrera doa, baina garaile ateratzeko antolakuntza eraginkorragoa behar dugu. Ardia hil egin da, bizia eman du gizakien kontrako iraultzaren alde, eta merezi duen bezala gogoratua izango da: oroitarri handi bat eraiki-ko diogu etxaldeko txoko batean.

Eta oihu biziz, hauxe gaineratu zuen:

–Baina ez ahaztu! Behiok ardiek eta zuek guztiok baino askoz martiri gehiago eman dugu iraultzaren alde! Eta horregatik ni neu izango naiz zuen buruzagi berria: Behi Handia. Eta hemendik aurrera erabakiak neronek hartuko ditut, gehienez ordezkarietara kontsulta eginez. Une honetatik aurrera abereen asanblada deseginda geratzen da, eta debekatuta geratzen da inor biltzea nire baimenik gabe, arratseko zortzietatik aurrera ukulutik ateratzea eta Behi Handiaz gaizki esaka aritzea. Hauxe da Etxalde-Inperio Handiaren hasiera. Gora Behi Handia!

Eta, handik aurrera, munduan diktadura berri bat izan zen, orenen etsai: Abere Eroen Etxalde-Inperioa.

Manu Lopez
Idazlea

BADERITZOSU ERABILI; BESTELA, ... LEHEN BESTEAN

Urteak daramatzat eskolak ematen euskaltegi batean eta konturatzen naiz badirela hainbat hizkuntza forma, esakune eta egitura geuk, berezko hiztunok (?), bakarrik erabiltzeko-edo dauzkagunak; esan nahi dut ez dizkiegula gure ikasleei irakasten. Baten batek esango du: “badute ikasleek aurreragorik *txokokeria* horiek ikastea baino”. Ba, bai, baina... Beti estandarren eta batuaren izenean eta nekez euskarren gizenan.

Damuak damu, aldizkari honek eskaintzen didan txoko hau erabiliko dut horrelako hizkuntza forma batzuk erakusteko, edo hautsa kentzeko, behintzat. Hona hemen, bada, zenbait aditz, galtzear egon litezkeenak baina oraindik berbetan erabiltzen ditugunak:

- 1 **Aitzakiatu [atxekixau]:** gustatu ez, aitzakiak jarri zerbaiti (DU)
Ondo egindako lana aitzakiatzen ez gara hasiko.
Ez pentsatu onena eroanda ere, aitzakiatu barik lagako duenik.
- 2 **Abonatu:** zerbaiten onurak azpimarratu, ondo berba egin zerbaitz (DU)
Amonak iloba abonatzea ez da mirestekoa ere.
Gauza onak abonatu beharrik ez du izaten.
- 3 **Berbatu:** adiskidetu (DA)
Umeen kontuak zirela eta berbatu ziren eta harrezkero ez ditut nik elkarrekin ikusi.
Ugazabarekin berbatuta dagoenetik ez da zapatueta etortzen.
- 4 **-ra egin, -ra eragin** (DU)
Nora egin ote ditut giltzak?
Nora egin duzu eskutrapua?
Propina poltsikora egin zuen.
Egin zaitz alboratxoago!
Gasolinak berriro ere gora egingo duela diote.
Buruari atzera egineran zorabioa egiten zait.
Aurrerantz eraginda ez bada zabaltzen, eragin atzera.
- 5 **Jiratu:** lortu, eskuratu, ekarri (DU)
Handikoan (aldameneko etxean) auto berria jiratu dute.
Obra hori egingo bada, subentzioren bat jiratu beharko dugu.
Lana jiratzea zen gaitzena.
- 6 **Jirak egin:** tramiteak egin (DU)
Alabakotzat hartzeko jirak egiten dabilta.
Oraindino ez dakit jubilatuko naizen baina jirak egiten badihardut.
- 7 **Izan** (ordezkapen lexikala): etorri, iritsi, abiatu, pasatu... (DA)
Laster izango da tren eta joan gaitzen anenera.
Honezkero laster da aitte be eta danok mahaire!
Han kasurik egiten ez badiote, laster da hemen berriro ere.
- 8 **Ezagun izan:** igarri, bistan eduki (DU)
Ezagun duzu Gabonetan ondo jan duzula.
Begietan zuen ezagun negar egin zuela.
- 9 **Irten:** igo, gainean ibili (DA, DU)
Ume hau beti dabil aulki gainera irtenda.
Hementxe hasita baietz irten Belaguako gainera!
- 10 **Kolpe egin:** oratu, ekin (DIO)
Beno mutilak, gogoz kolpe egin beharko diogu lanari!
Txakur honek kolpe egiten badizu, zatia kenduko dizu.
- 11 **Kontuak batu:** arazoak sortu, buruko minak eman (DU, DIO)
Horrela jarraituz gero, ume horrek kontuak batuko dizkie.
Bide zati hark gero ere kontuak batuko dizkie, han azpitik ura doa eta.
Gaixotasun horrek gure artean ere kontuak batuko ditu.
- 12 **Baderitzot / ez deritzot:** ondo / txarto iruditzen zait (DIO)
Zuk ez baderitzozu hari esatea alferrekoa da.
Nik aurkeztu nuen proiektua baina batzordeak ez zion iritzi.
Zuk baderitzozu, ala?
Nik esan nien, irizten bazioten, egiteko.
Zer, zuek baderitzozue 10 urteko umeari hirurak arte lagatzeari?
- 13 **Erabili** (ordezkapen lexikala): eduki, pentsatu, jardun, tresna bakoitzari dagokion jarduera (autoa-gidatu, etxea-okupatu, arropa-jantzi...) (DU)
Zer darabilzu ahoan? Txikleak?
Autoa erabiltzen baneki, ez nintzateke inoren zain egongo.
Ez dakit aspaldi honetan zer darabilen horrek buruan.
Zer ote darabilzue zuek hor isil-isilik?
Zarauzko etxea udan baino ez dute erabiltzen.

Itziar Garitagoitia (mallabitarra)
Eibarko Udal Euskaltegioko irakaslea

Lagundu laguntzaileei

DA, DU, DIO, ZAIO... sarritan ez da erraz asmatzen zein erabili, esate baterako: *existitzen da* ala *existitzen du*? Hala, horietako batzuk batu eta hona ekarri ditugu, beti ere *Hiztegi Batuak* eta *Euskal Hiztegia* aintzat hartuta.

Jardun DA/DU. Nahiz eta DU laguntzaile duna zaharrago izan eta hedatuago egon.

Joan den asteko okerrak zuzentzen jardun dute.
Bertsotan jardun dira.

Jarraiki DA/ZAIO. Tradizioz Iparraldekoa dugu aditz hau.
Ni txostenak esandakoari jarraiki natzaio.



Jarraitu DU/DIO. Tradizioz mendebaldeko aditza.
Idazlanak zuzentzen jarraitu du, burua jaso gabe.
Mendian gora inork ezin izan zion jarraitu.

Behar izan: *Hiztegi Batuak* ez du oraingo erregimenik jarri. Eta Sarasolaren arabera, *behar*-en osagaia NOR tipoko aditza denean, laguntzailea bietara ageri da: DA edo DU.
Bihar hasi beharko naiz/dut horretan.
Gurekin etorri behar izan zen/zuen.

Edozein modutan, osagaia NOR-NORK erako aditza denean, laguntzailea, zeresanik ez, DU izango da beti:

“Moneta” esan beharrean, “diru” esan beharko genuke.
Egunean zortzi orri itzuli behar izaten ditut.

Irten DA. Ezarri du *Hiztegi Batuak*, nahiz eta Bizkaian eta Gipuzkoaren zati batean *irten*, *erten*, *urten* DUT esan.

Goizegi irteten da larunbatetan.

Igo: *Hiztegi Batuan* ez dakar erregimenik, eta Sarasolaren hiztegian DA ageri zaigu.

Ardoa burura igo zaio.

Jolastu DA. Honen aldaera bizkaieraz *olgatu* da, eta hau izan daiteke DA/DU. Beste era hauetara ere esan daiteke: *olgetan egin/ibili*, edo *jolas egin*, *jolasean ibili/aritu*.

Afariketan jolastu dira hirurak elkarrekin.
Egingo dugu olgetan?

Baina:

Gorostizak ez du aspaldian jokatu Astelenan.

Dantzatu DA, eta DU objektua izendatzen denean.

**Zure nobioarekin dantzatu dut.*

Hiru orduz dantzatu ziren.

Lehenengo kontrapasa dantzatuko dugu.

Ez ahaztu *dantza(n) egin* ere hor dugula.

Borrokatu DA. Edo bestela *borroka(n) egin* esan dezakegu.

Batzuk senideen kontra ere borrokatu ziren.

Solastatu DA. Aditz hau Iparraldean erabiltzen dute. *Solas egin* edota *mintzaturen* parekoa da.

Gramatikaz solastatu ziren luzaz.

Existitu DA erabiltzea gomendatzen du *Hiztegi Batuak*.

Hori ez da existitzen!

Dena dela, ez ahaztu *existitu* ez zenean, *izan* erabiltzen genuela.

Izena duen oro omen da.

Badena dena da.

Badira beste berba bi barra-barra entzun eta erabili arren *Hiztegi Batuan* eta Sarasolaren ageri ez direnak: *entrenatu* eta *eboluzionatu*. DU beharko lukete, baina oraingo itxaron egin beharko dugu. Bien bitartean *dutxatu*, nahiz eta antza denez, *dutxa hartu* baino ezin den egin.

Eta amaitzeko kontuz *korritu!*

Aintzane Arrieta
HAEEko teknikaria

Pozoitzen ari al gara?


Galdera oso gordina da eta gehiegizkoa dirudi, baina elikadura ez da txantxetako kontua eta, are gutxiago, azken urteetan ikusten ari garena ikusi eta gero, Karlos Argiñanok ondo dioen bezala, osasuna eta gaixotasuna ahotik sartzen baitira. Josu Albizuk kontrolen zorrotasuna azpimarratzen du eta Maite Aristegik eta Antonio del Barriok, berriz, produkzio sistema intentsiboaren irizpide okerrak.



Maite Aristegi EHNERen idazkari nagusia

Garaia da denok galdera hori egiteko, kezkatzeko. Baserritarren aspaldiko kezka da: gaur egungo gizartean elikadura oso bazterrean uzten ari gara eta beste lehentasun batzuk ditugu, hark duen eraginaz jabetu gabe. Aisialdiak eta itxurak hartu dute lehentasuna, eta elikadura ez da kezka nagusia. Behi eroen

krisiak plazaratu du arazoa, baina aspalditik salatzen ari gara produkzioari bakarrik begiratzen dion nekazaritzaren ondorioak. Orain da garaia, krisia sortu denez, guztiari buruz hitz egiteko. Produkzioa azkartzeko hormonen, antibiotikoen eta transgenikoen kontrako borrokan jarraitu behar dugu: debekatu egin behar dira. Elikadura naturala helburutzat hartuta, animaliak eta landareak hazteko erabil daitezkeen produktuen zerrenda egin behar da, hau da, zer jan edo hartu dezaketen zehaztu. Normalean alderantziz egiten da eta beti traspaz, elikaduran sartzen baitira debekatuta egon beharko luketen produktuak. Animaliak elikatzeke proteina begetalak bultzatu behar dira, ganadua elikadura naturalaren bitartez hazi behar da. Barazetara begiratuta, nekazaritza ekologikoa da etorkizuna. Nekazaritza ekologikoa ez da oraingo asmakizuna, bertako baserrietan beti egin izan dena baiziki: produkzio orekatua. Denok gara ezjakinak. Gu, ekoizleok, ere bai. Ustez ondo ari gara, baina begira Nafarroako kasuak. Ezin dugu etxeko generoa bakarrik eman, kanpotik ere erosi behar izaten dugu. Ustez genero ona erosten dugu, baina ez gara ez albaiariak, ez zientzialariak. Geuk ere kontzientzia gehiago hartu behar dugu, baina Administrazioak ere neurriak hartu behar ditu kontrolak egiteko –pentsuenak esaterako– eta debekuak ezartzeko. Elikadura sanoaren bidez gure produkzioa sortzea aldarrikatzen dugu; baina prezio duinean saltzeko, ezin baitira ogerlekoak lau pezetan eman.



Antonio S. del Barrio

EHUko Farmazia Fakultateko Dietetika eta Nutrizio irakaslea

Pentsa, munduko elikagaien merkatuak 400 bilioi dolar inguru mugitzen ditu urtero. Iragan berri den mendearen benetako lehia sortu eta garatu da elikagaiak ahalik eta merkeen produzitzeko. Horrez gain, aintzat hartu behar da beste faktore bat: munduko merkatuen globalizazioa, elikagaiak edo beren osagaiak oso azkar mugitzea ahalbidetzen duena munduaren alde batetik bestera. Plagiziden, herbiziden eta ongarrrien erabilera ere azken mendeko nekazaritzaren ezaugarria da, eta hormonen erabilera abeltzaintzarena. Babes kimiko hori beharrezkoa da, uste baita munduko elikagaien produkzio potentzialaren heren bat galdu egiten dela izurriteen ondorioz, eta produkzio intentsiboari eustea ezinezkoa da ongariak erabili ezean. Goi teknologiak elikagaien ekoizpenean eskaintzen dituen aukerak ahalbidetu dute elikagaiei bitarteko edo substantziak gehitzea, gehienetan legez kanpo edo legeen hutsunez baliatuz. Ondorioz, zuzenean edo zeharka kontsumitzaileen osasuna kaltetzen dute. Abereentzako botika gehiegi erabiltzeak ere arrisku larrian jartzen du kontsumitzaileen osasuna. Estrategia horien guztien helburua bat da: prozesuaren errentagarritasuna; alde batetik, ekoizpen edo transformazio kostuak gutxitzen direlako, eta bestetik, produkzioa eta etekinak handitzen direlako.

Eta, bereziki, abereak elikatzeke erabiltzen diren pentsuen osagaiak zaindu behar dira. Ekoizle gehienek, ordea, ahalik eta lehengai merkeena nahi dute, ekoizpenean ahalik eta etekin gehien ateratzeko. Pentsuak egiteko nahasketa oso konplexuak erabili dituzte eta oso zaila da horiek kontrolatzea eta arautzea. Eta, ia ahaztuak genituenean, berriro azaldu dira behien entzefalopatia espongiformeak. Baina, gogoratu, aurretik dioxinen arazoa ere azaleratu zela.

Hori horrela izanik, gero eta garrantzi handiagoa dauka elikagaien segurtasunak eta kalitateak. Iritzi publikoa oso sentibera da gai horiekiko, eta izugarri larritzen da halako kasuak komunikabideen bitartez jakinarazten direnean. Era berean, aintzat hartu behar da elikaduraren inguruko gaiek gero eta interes gehiago dutela kontsumitzaileentzat. Alde horretatik, ulergarriak dira azken urteetan elikagaien inguruan sortu diren kezkek eta alarmak. Zoritxarrez, elikagaiek sortutako ezusteak ez dira bukatu.

(*) UNEDen 2000-2001 ikasturteko ikasturte hasierako lezioetik hartua.



Berta Garcia

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolakuntzako kidea

Momentu honetan, hartzen ari diren neurrien ondorioz, elikagaien segurtasun maila igo egin da. Horrek ez du esan nahi, ordea, aurreko urteetan gauzak ondo egin direnik, kontrol eza ikaragarria izan baita. Neurririk gabeko produktibismoa bultzatu da eta enpresek, irabazi azkarrak helburu, arriskuan jarri dute hiritarren osasuna. Are gehiago, orain argitara ateratzen ari da aurreko urteetan ezagutzen zirela jardue-
ra horiek, baina ez zirela beharrezko neurri guztiak hartzen (orain jartzen ari direnak). Baldintza txarretan zeuden elikagaiak jan baditugu, etorkizunean ikusiko eta ordainduko dugu. Kontsumo masiboak kontsumitzaileari sinistarazi dio gizarte justuago eta demokratikoago batean bizi zela. Kontsumitzailea lasaitu egin da, baina orain ikusi du zer gertatzen ari den. Agintariek askoz ere garrantzia handiagoa eman diote ekonomiari osasunari baino, elikadura ekonomiaren ikuspegitik jorratu da, ez osasunaren ikuspegitik. Horren ondorioa da nekazaritzako elikagaien industrian izan den gorakada, gobernuen eta Europako Batasunaren dirulaguntzei esker. Halako egoeretan kontsumitzaileen tresna garrantzitsuen
informazio gardena, zuzena, osoa eta objektiboa da. Osasuna dago jokoan, gure ondarerik preziatuena. Baina informazioa ez da tresna bakarra: kontsumitzaileek agintariak presionatu behar dituzte kontrol zorrotzagoak ezartzeko. Kontsumitzaileak prozesu guztiaren kontrola zuzen egiten dela pentsatu behar du, ez hiltegitik saltokiraino bakarrik, baita aurretik ere. Izan ere, azken urteetan animalien hazkuntza eta garapen normala bizkorraz egin da. Beraz, kontrolak funtsezkoak dira, erakundeengan konfiantza berreskuratzeko.

Asier Albizu

Eusko Jaurlaritzako Elikagai Politikarako zuzendaria

Argi eta garbi esan beharra dago ez garela pozoitzen ari. Sekula baino neurri gehiago hartzen dira kontsumitzaileak lasai egoteko, sekula baino lasaiago jaten dugu edo jateko aukera dugu. Pentsatu behar dugu duela zenbait urte, jendea gaixotzen edo hiltzen zenean, ez genekiela zergatik gaixotu edo hiltzen zen; gaur egun, ordea, edozein gaixotasun edo heriotza gertatuz gero badakigu zergatik eta nola gertatzen den. Eta ezagutzak, lasaitasuna edo konfiantza eskaintzeaz gain, beldurra ere sortzen digu. Betidanik gertatu dira halako krisiak edo kontraesanak, eta gertatuko dira, batzuetan ez baita behar bezala lan egiten. Halako arazoak gero eta gutxiago izango dira, baina gertatzen direnean garrantzitsuak izango dira, eta nolabaiteko alarma sortuko dute. Kontsumitzaileak, neurri batean, baditu tresnak jaten duena kontrolatzeko. Kontsumitzaileak zehatz-mehatz irakurri behar ditu etiketak, eta konfiantza izan behar du bertan jartzen den informazioan. Kontsumitzaileek ere badute erantzukizuna horretan, zer erosten eta jaten duten jakiteko. Bide horretatik, neurri zorrotzak eta zehatzak hartu dira azken hamarkadan, eta neurri horiei esker daukagu gaur egun daukagun konfiantza.

Azken aldian sortutako elikadura arazoek badute zerikusia produkzio edo ekonomia sistema batekin. Produkzio eredu horren ondorio dira, neurri batean. Hala ere, behi eroen kasuan, esaterako, arazoak berak ez du eman zaion bezainbesteko garrantzia.



Karlos Argiñano

Sukaldaria

Azken hilabeteetan behi eroen gaitzari buruz galdetzen didaten komunikabideei eta herritarrei esaten diet gero eta indartsuago nagoela. Egia da, haragia jaten dut eta ondo sentitzen naiz lasai nagoelako eta haragia saltzen didaten harakinengan eta abeltzainengan konfiantza osoa dudalako. Espero dut arazoa laster konpontzea eta agintariek kontrol zorrotzak ezartzea, behi haragia inolako beldurrik gabe jan dezagun. Dena den, ez dugu ahaztu behar ahotik sartzen direla bai osasuna, bai gaixotasuna. Horrek esan nahi du familiak jaten duena zaindu egin behar dugula, guztiok osasuntsu egoteko. Hala ere, bezeroak gero eta zorrotzagoak dira, kalitatea eskatzen dute eta elikadura zaintzen. Egia esan, egoera ez zait larria iruditzen, benetan. Funtsa kalitatea hobetzea eta jaten duguna zaintzea da. Horretarako, interesgarria litzateke seme-alabei elikadura ona zer den erakustea, bertako produktu naturalak estima ditzaten. Kontsumitzaileok erosten ditugun produktuen informazio guztia eskatu behar dugu eta Administrazioak zeregin handia du informazio osatua eskaintzen dela bermatzen. Etorkizunean egungo arazoaren antzekoak sortuko dira, saihestezina da, beti baitago lana behar bezala egiten ez duen norbait. Hala ere, espero dut kontrol neurri guztiak jarriko direla, eta horretan zorrotz jokatu behar dugu.


NOLA EGIN FUNTZIO PUBLIKOA ORAIN BAINO MALGUAGOA? EB-KO KIDEEK DARAMATEN BIDEA. ALDERAKETA BAT

Azken bi hamarkadetan, Europar Batasuneko estatu gehienak funtzio publikoa beste era batera antolatu nahian dabil-tza, “kudeaketa publiko berri bat” sortzeraino, zenbaiten ustez. Arrazoiak asko dira, eta nahiko orokorrak askotan: gastuei lehen baino gehiago begiratu beharra; orain herritarrek hobeto dakite zer eskatu; langile onak lortu beharra; herrialdeari nazioartean lehiatzen lagundu beharra; aurrerabide teknologiko berriak...

Eta, horretaz gainera, Batasuneko estatuak beste esparru ekonomiko eta politikoko zabalago batean daude, eta funtzio publikoak ere hartara egokitu behar dira. Horrek zer dakarren?

Lehenik, agintea lehen baino banatuago dago. Legeak eta politikak “Europatik” datoz askotan. Eta, gainera, auzo herrialdeetako jendeari ere sarbidea eman behar zaio orain.

Bigarrenik, estatua bera ez da lehengo bera. Orain, zerbitzuak eskaini baino, arauak sortzea eta ekonomiari bidea erraztea du egiteko nagusia, edo joera hori hartu du behinik behin.



Ulegarria, hortaz, administrazioa kudeatzeko bideak berri-tzeko ahalegin hori. Berritze-bideak arlo bat baino gehiago biltzen du, lau hain zuzen ere: finantzak, antolaketa, emaitzak eta langileak. Guk, oraingo honetan, azken arlo hori, langileena, hartuko dugu hizpide. Has gaitezen, bada.

Karrerako funtzio publikoa

Europar Batasuneko estatuak bitan banatzen dira: gutxi gorabehera karrerako funtzio publiko bat dutenak; eta funtzio publikoa beste era batera antolaturik daukatenak. Karrerako funtzio publikoak, ondotxo dakigu, baditu ezau-garri berezi batzuk, adibidez: legezko eskakizun berezi batzuk postu jakinetarako (diplomak); arlo publikokoa ez bada, esperientziak baliorik ez; antzinasun-sarietarako antzinasuna besterik behar ez; ordainsariak aldeetako batek zehazten ditu bere kasa... Tira, badakigu hori, ezta? Herrialde gehienek eredu horri jarraitzen diote: Belgikak, Alemaniak, Greziak, Espainiak, Frantziak, Irlandak, Luxen-

burgok, Austriak eta Portugalek. Eta beste taldean, berriz: Danimarka, Italia, Herbehereak, Finlandia, Suedia eta Erresuma Batua.

Esanak esan, karrerako funtzio publikoaren oinarrian oso iriz-pide garrantzitsuak daude, hala nola, merezimendua hartzea izendapenentarako arrazoi bakar modura; eta herritar guztien aukera-berdintasuna. Baina, kudeaketari erreparatu gero, sis-tema horrek baditu desabantaila handitxo batzuk, denak ere kontzeptu bakar batera biltzeko modukoak: kudeaketa molda-kaitza edo, esan ohi den moduan, malgutasunik eza.

Langile publikoen kudeaketa geroz eta moldaerrazagoa

Gehienetan, funtzio publikoaren berritze-saiakerak malguta-sun handiagoa lortzeko ahaleginak dira. Eta bi bide erabil daitezke horretarako:

Lehena: Arau moldakorrak sortzea, esate baterako, sus-tapena dela, ordainsariak direla, hautapena dela... Bide horri ekin berri diote Belgikan eta Alemanian.

Bigarrena: Karrerako funtzio publikoari amaiera ematea, hau da, arau horiek guztiak “normalizatzea” edo, bestela esanik, pribatizatzea. Halaxe egin dute Italian, Herbeheretan eta Suedian.

Hala, azken bi hamarkadotan, langileentzako arauak lehen baino moldakorrak bihurtu dira. Baina zer da “malguta-sun” kontu hori? Zer egin behar da moldakorrak? Hara hemen erantzuna: hitzarmenak, lanorduak, ordainsariak, erretiratzeko urtea, lana bera eta lan-lekua. Azal ditzagun atal horietako hiru.

Hitzarmen moldakorrak

Finkoak ez direnak eta birkontrata ditugu gogoan hemen. Herrialde batzuetan, administrazioa ia lanpostu guztiak funtzionario-lanpostuak dira (Belgikan eta Frantziak, esate baterako), eta bestelako hitzarmenak funtzionariotasunaren trinkotasun horri ihes egiteko bide bat dira (hautapena askoz bizkorrago, lanpostu berezi-berezietarako jende aproposa aurkitzeko modua...). Beste batzuetan, aldiz, lanpostu berri-rik ez sortzeko agindua jaso dute azken urteotan, eta lan-legepeko hitzarmen horiek agindu horri ihes egiteko erabili dira, Espainian adibidez.

Lan-orduak

Batasuneko herrialdeek bide bat baino gehiago hartu dute: lan-orduak gutxitu, lan-orduak aukeran utzi, lanaldi murriz-tua... Era batera edo bestera malgutu, kontua da administra-zioak langileen indarra, langileak alegia, dagoen lanaren arabera moldatzeko aukera izatea, eta langile horiek lana beren beharren arabera egokitzea. Lanaldi murriztua dela-eta, badago zer irabazia: langabezia gutxitu, emakumei lan-merkatutarako bidea zabaldu, edo, besterik gabe, hobeto bizi, beste zereginik ere bai baitaukagu. Baina, gerta daiteke, baita ere, halako lanek nahikoa dirurik ez ematea, eta, jaki-

na, inork ez du horrelakorik nahi. Halako lanaldiak bultzatzeko politikek borondatezkoak izan behar dute, ahal dela. Herrialde guztiek bide hori daramate gutxi gorabehera, baina denak ez dira abiada berean abiatu. Espainian, Portugalen eta Grezian ez dago aukera handirik. Irlandan eta Luxenburgon egun erdiko lanaldia da aukera bakarra, baina beste herrialde batzuetan, ordea, lanaldi murritzuari berez behar baino ordainsari handiagoak ematen dizkiote, erakargarriak izan daitezten eta, hartara, lanpostu gehiago sortu ahal izateko, Belgikan eta Frantzian batez ere.

Ordainsariak

Malgutasunak bi bide hartzen ditu: ordainsariak negoziatzea eta sari horiek emaitzen arabera ordaintzea.

Ordainsariak zehaztea eta negoziatzea


Betiko sisteman, karrerako funtzio publikoan alegia, ordainsariak gobernuak zehazten ditu bere kasa, negoziazio handirik gabe. Baina hori ere aldatzen ari da, herrialde batzuetan behintzat. Herrialde batzuetan, benetako lan-hitzarmen bat daukate, derrigor errespetatu beharrekoa. Danimarkan, Italian, Finlandian eta Suedian dauzkate halakoak. Batzuetan, sindikatuekin elkarrizketa egin, eta, azkenean, akordioa legez jaso beharra dago, Portugalen eta Herbeheretan gertatzen den moduan. Espainian ere akordio horiek legez onartu behar dira, baliorik izango badute. Beste batzuetan, akordioa konpromiso politiko bat da, eta gobernuak, zintzo jokatzekotan, errespetatu egin behar du: Belgikan, Frantzian eta Austrian. Eta, azkenik, beste batzuetan gobernuak ez du sindikatuekin erabakitakoa errespetatu beharrik. Alemania da adibiderik onena. Eta non erabakitzen da zenbat ordaindu? Horretan ere zentralizazioa herrialde batzuetan beste batzuetan baino handiagoa da, baina tira, jarrai dezagun aurrera. Datorren atala interesgarriagoa izango da-eta ziurrenik.

Ordaina, emaitzen arabera

Ordaina emaitzen arabera bada, emaitza hobeak lortuko ahal ditugu! Horixe da ordain-sistema honen aldeko arrazoirik garbiena, hau da, ordainak langilearen gogoia piztu egiten du, gogoa ahalegina dakar, eta ahaleginak emaitza onak. Era askotara egin daiteke: Belgikan, Alemanian eta Herbeheretan, esate baterako, soldatak igotzeko orduan emaitzei begiratan diete; eta Suedian eta Erresuma Batuan, aldiz, ordain osoa dago emaitzen gorabeheran. Baina emaitza hobeak al dakartza benetan? Hamaika azterlan egin da galdera horri erantzuteko, eta Britainia Handian, behinik behin, badirudi erantzuna... ezezkoa dela. Alde batetik, langileek ez zuten, ez horixe, saririk gabe geratu nahi, eta sariagatik beragatik baino, lotsa beldurrez seguruago. Baina, ustez ondo lan egin arren, ez omen da saririk hain erraz iristen, eta, azkenean, gogoberritu ez baino, moteldu egiten omen dira langileak. Eta beste herrialde batzuetan, ere, antzera: sariak nahiko erakargarriak ez; emaitza ona edo txarra lortzea ez dela ahalegin kontua soilik, badirela beste arrazoi batzuk ere... eta halaxe.

Hortaz, baldintza batzuk behintzat jarri behar dira:

- ✗ Ordainak erakargarriak izan behar du.
- ✗ Emaitzak neurtzeko sistemak sinesgarriak izan behar du.
- ✗ Gutxieneko sari batzuk behintzat jarri behar dira.
- ✗ Erakunde osoaren emaitzak dira kontuan hartzekoak.



Ondorioz

Administrazioa eraberritzeko, egitura moldakorrak behar dira itxura denez. Denak ados daude horretan, baina apenas egiten den, egitura "xamurtu" eta gero, azterlanik jakiteko ea ekoizpenak benetan gora egin duen. Emaitzen arabera soldataren eragina bai aztertu da, eta ondorioak ez dira oso-oso argiak. Baliteke, azken batean, hitzez eta arazuz bai aipatzea malgutasun beharra, baina ezer gutxi aldatzea egiatan. Hori da, antza, Britainia Handian gertatu dena. Beste alde batetik, malgutasun delako horrek benetan pizten al du langilearen gogoia? Ala, haren iritziz, lan gehiago egin beharra besterik ez dakar, eta lana bera galtzeko arriskuarekin gainera. Ikusi egin behar. Eta herrialde herrialde baldin bagoaz, administrazioerik moldakorrena non duten jakitea ere ez da, bada -hauxe ere ez, gero- gauza erraza. Baina, gutxi gorabehera, bai egin daiteke sailkapen bat: lehenengo mailan, Suedia, Erresuma Batua, Finlandia eta Danimarka; pixka bat azterago, Irlanda, Italia eta Herbehereak; eta gainerako guztiak atzetik datoz. Hori bai, Belgika aurreko taldea harrapatu nahian dabil.

Koen Nomden
Antwerpen-eko Unibertsitateko ikertzailea



Merkataritza eta Ostalaritzarako Euroaren Gida praktikoa

Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Vitoria-Gasteiz, 2000
72 or.

Europa eraikitzen ari den une erabakigarri honetan, eskal gizarteak gainditu behar du euroaren etorrerak ekarriko duen erronka eta, zeregin horretan, merkatal eta ostalaritza sektoreak funtsezko eragina izango du. Gida honetan, euroa ezartzeak ekarriko dituen gorabeherak eta prestaketa-lan zehatzak aurkituko ditu irakurleak. Gida euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dago oso modu argi eta erakargarrian.



Enpresa euskaldunduz. Fitxa juridikoen eskuliburua

Bizkaiko Foru Aldundia. Lehendakaritza Saila
Bilbo, 2000
373 or.

Bizkaiko Foru Aldundiak 1997an argitaratutako *Enpresa euskaldunduz. Urratsez urrats* izeneko liburuaren jarraipena dugu honako hau. Helburua zera da: enpresek erabiltzen dituzten agiri juridikoen erabileran, bai eta profesionalak erabiltzen dituzten agirien erabileran ere, hizkuntza normalizazioa lortzea. Erabilgarriago egiteko, zati hauean banatu dute liburua: laneko segurtasun eta osasuna, lan-kontratuak, merkataritza-sozietateak, salerosketa-kontratuak, errentamendu-kontratuak, lankidetzakontratuak, garraio-kontratuak, tartekaritza-kontratuak, ikerketak eta bekak, eta zerga arazoak. Lagungarri modura, bukaeran, egileek hiztegi bat (gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania) eta eremu juridikoaren testuetan gehien erabiltzen diren aditzen modu eta adierak ere erantsi dituzte.



Fundamentos críticos de sociolingüística

Francisco García Marcos
Manuales. Universidad de Almería.
Almería, 1999
560 or.


Hona hemen soziolinguistika arloko ikerlan berri bat. Hiru atal nagusitan banatu du egileak, eta atal bakoitzak soziolinguistikak bere hastapenetatik hartu izan dituen eremu nagusiak islatu nahi ditu. Lehendabiziko eremua teoriari dagokiona da, hau da, oinarri epistemologiko eta metodologikoak azaltzen ditu; bigarrenak arlo deskriptiboa hartzen du; eta, hirugarrena aplikazioari eskaintzen zaio. Ama-hizkuntzaren irakaskuntza, hizkuntza-politika eta planifikazioa izan dira betidanik soziolinguistikaren ardura, baina liburu honetan orain arte aztertu gabeko beste arlo batzuk gehitu dira, esaterako, zuzenbide-hizkuntzalaritza. Liburu mamitsua, benetan.



Hiztegi Batua

Euskaltzaindia. Euskera aldizkaria (45. liburukia)
Bilbo, 2000
757 or.


Euskaltzaindiak orain arte hiztegi alorrean hartu dituen erabaki eta gomendio guztiak hartzen ditu bere baitan argitalpen honek. Euskaltzaindiak esaten duenez, "Hiztegi Batu hau da, Euskaltzaindiarentzat, euskal hitzen, aldaeren eta horien guztien erabileren zuzentasuna edo egokitasuna erabakitzeko irizpidea".



Cómo hablar bien en público.

Comunicar, persuadir y convencer con palabras
(2. argitaraldia)
Ed. Gestión 2000
Barcelona, 1999
155 or.

Jendaurrean hitz egin beharra gehienetan ez da lan erraza izaten, batez ere horretarako ohiturarik ez badugu. Hala ere, gaurko gizarte honetan, betebeharrak saihestezina izaten da bizitzako alor guztietan, eta bakoitza ahal den moduan moldatu behar izaten da. Liburu honetara jotzen duenak formula magikorik aurkituko ez badu ere, jendaurrean hitz egiteko zenbait trikimailu eta kontuan izan beharreko aholku erabilgarri bereganatuko ditu. Eta horiek guztiak ondo ikasi ahaliko ditu ariketa askoren bidez.




Ingurumenari buruzko udal-ordenantza eredia

EUDEL
Bilbo, 2000
645 or.

Ingurumenaren Babes Orokorrari buruzko 3/1998 Legean ezartzen denaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri guztiek dagozkien ordenantzak onetsi behar dituzte ingurumena babesteko. Argitalpen honen bidez, Euskal Udalen Elkarteak helburu hori betetzeko lanabes bat jarri du udalen eskuetan: dokumentu-gida ireki eta didaktiko bat. Horrez gain, ingurumen-arloko terminologia biltzen duen glosategi bat eta ingurumen-esparruan indarrean dagoen araudiaren zerrenda ere ematen ditu. Udalei lana errazteko, argitalpenarekin batera, CD-ROM bat aurkeztu du.

“Mugarriak erakusten duenez...?”




Gogoan daukat abuztua zela. Taberna “txikixa” zen, “arranplatik” oso hurre. Txakolin bana eskuetan geneukala hasi zen gutako bat (Azpillaga, akordatzen al haiz?) pasadizoa kontatzen. “Zautzan” bazen bat *Patxi Maia* izena zuena. Hark ipintzen zituen baserritarrak bake gozoan. Kontakizuna entzutean ikasiko duzu nola egiten zituen bake-lanak. Notarioek ere sarritan hots egiten omen zioten mugarriekin sortutako “saltsak” garbitzeko. Liburu zaharren batean irakurri izan dut “erdiko” deitzen zaiola halako eginkizunetan dabilenari. Baina, entzun ez dut halakorik entzun.

Hainbat denbora dela, auzoko bi baserritar bake txarrear bizi ziren. “Halako lur-zerrenda hura gurea da, eta ez zuena” aurpegiratzen zioten elkarri. Baina, biek ere bake-gose izan behar zuten, auzokoak izaki. Zer egingo eta... Ikusirik bakoitzak bereari eusten ziola, hor non hasten diren Patxi Maiaren bila. Etxera-edo joango ziren galdetza, eta... “bera” han ez zela, “baten baten” ezteietara joana zela, eta honezkero “banketea” izango zela jaten... Behintzat, hor joan dira uso-tximista jatetxeraino. Sartu eta hala esaten diote etxeoandreak: “Patxi Maia hemen al da?” “Zer degu, ba?” “Datorrela derrepente!”. Hori entzuteaz bat “han ziak eta baziak” etxeoandrea Patxi Maiaren bila “zaltaka” batean; eta horra non datorren “berahura”, jaten ari zen jakia platerean lagata. Patxik urrutitik antzeman zien baserritarrei elkarrekin zer zuten. Orduan, haie-tako batek “Hara; zuk badakizu, ezta, non dagoen halako

terreno hura?” Eta Patxi Maiak “Bai”. Berriz ere, lehengo baserritarrak “Orduan, mugarriak erakusten duen bezala, lur hori gurea da, ezta?” Erantzuna pentsatzen zenbat denbora eman zuen ez dakit (eta ni ez naiz hemen asmatzen hasiko); baina, honelatsu erantzun zuena badakit “Bai, mugarriak erakusten duen bezala lur hori zuena da. Baina, mugarri horrek... bere tokira etorri behar du”. Han bukatu ziren saltsa guztiak. Gero, bi baserritarrak bake onean etxeratuko ziren. Bidean ere, beharbada, “baxo-erdi” bana elkarrekin joko zuten, elkarrekikoak modu onean konpondu zituztelako. Eta, erdiko egin zuena, berriz, mahaira itzuliko zen, platerean lagatako bildotsari, batere bakerik gabe, hortzak erakusteko, berriro.


“Ez dut pentsatu ere egin nahi, zer gertatuko zitzaiekeen... bake bila, epaileetara jo izan balute, –entzun nion bati– *Justizia* anderearekin tratuan hasteko, dirua eta denbora behar baita”. Ni, berriz, pentsamendu sakon horri ezer kendu gabe, Patxi Maiak oso hitz politak asmatzen zituela-ta nago. Hori da hitz egitea. Eta, norbaitek “hizkera metaforikoa” zer den galdetzen didanean, esaten diot hizkera horretan mugarria “ibili” egiten dela, edo, Malibu-ko mediku batek zioen bezala, espermatozoideek olatua hartu eta “surfa” egin behar izaten dutela, umetokiraino iritsiko badira. Zer litzateke komunikazioa, metaforarik gabe?

Jexux Eizagirre



A b a r a s k a


Erantzun guztiak sei letrakoak dira eta zenbakiaren inguruan kokatu behar dira. Erantzun bakoitzaren lehen letra zenbakiaren gainean doa beti. Gogoan hartu hitzak ordu orratzen arabera bideratu behar direla.



LUMA

1. Gizaseme gazte. 2. Banaketa egin. 3. Adiskide handia. 4. Gaitz mota.
5. Sabaitik behera tantaka erortzen den ura. 6. Arrain mota. 7. Esku itxi.
8. Zazpi eguneko denbora tartea. 9. Ahomen. 10. Kubo formako. 11. Preso.
12. Dantza koreografikoa. 13. Zuhaixa mota. 14. Trebeak, abilak. 15. Aditua.
16. Sustraiak, zainak.

H i e r o g l i f i k o a



LUMA

Non ikusi duzu filme hori?

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945/01 81 10
- Ika eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 83
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54
- UZEI: 943/47 33 77

S o l u z i o a k

(BI DE OAN)
BIDEOAN
ERANTZUNA:
H i e r o g l i f i k o a

1. Mutiko. 2. Banatu. 3. Laguna.
4. Animia. 5. Iokin. 6. Aligor.
7. Urabiti. 8. Asteak. 9. Mokadu.
10. Kubiko. 11. Gaitbu. 12. Batera.
13. Ezpela. 14. Iaiok. 15. Ikasia.
16. Erroak.

A b a r a s k a